

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA  
ETA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK**

**BIHOTZ-BERRI ZAITEZTE  
ETA SINETSI BERRI ONA**

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA  
ETA GASTEIZKO GOTZAINEN IDAZKIA**

**1991, GARIZUMA-PAZKO PIZTUERA**

**AURKIBIDEA**

---

**SARRERA**

- Garizuma eta bihotz-berritzea (1. z.)
- Kristau bizitza tinkotu (2. z.)
- Bihotz-berritzearen premia larria (3. z.)
- Bihotz-berritzearen ahalegina eta poza (4. z.)
- San Inazioaren Mendeurreneko urte barruan (5. z.)
- Pastoral Idazkiaren edukia (6. z.)

**I.- ABIAPUNTUA: GIZA BIZITZA, HONDATURIK**

**A. NORK BERE BURUAREKIN TOPO EGITEA**

- Pertsona osoari dagokion aldaketa (7. z.)
- Egoera kaltegarritik mesedegarrira (8. z.)
- Planteaketa egitea zaila (9-10. z.)
- Bilaketa jatorra (11. z.)
- Fatalismoa ala itxaropena (12. z.)
- Gizartearen ala pertsonaren lehentasuna? (13-14. z.)
- Pertsonaren duintasuna balieztea (15. z.)
- Gure munduaren barruan (16. z.)

**B. NORBERAREN EZAGUTZA (17. z.)**

- Berehalakoaren premia larria eta bizitzaren esanahiari buruz galdetzea (18. z.)
- Gero eta gehiago eduki nahia eta edukitzearen hustasuna (19. z.)
- Maitasunaren ilunbea eta "Zu" traszendenteari dei egitea (20. z.)
- Heriotzaren kontra eta heriotza sortzen lankide (21. z.)
- Familiako etsialdiak eta soziasun falta (22. z.)
- Bakarkeria egoista eta solidaritarako erabakia (23. z.)

Eskuhartzeko askatasun eta sektakeria (24-25. z.)  
Kristau elkarteen nahia eta izatea (26. z.)

### C. GAURKO MUNDUAREN AURREAN ONGI KOKATUAK

Errealista eta kritikoak izan, geure burua hobeto ezagutuz jokatzeko (27-28. z.)

Atzokoan itxita geratu gabe (29. z.)

Sineste tinko batzuk

- Zientzia eta fedea (30. z.)
- Jainkoaren heriotza eta giza duintasuna (31. z.)
- Modernitatea eta balio etikoak (32. z.)
- Atsegina eta ukapena (33. z.)
- Eduki eta izan (34. z.)
- Premia historikoa eta askatasuna (35. z.)

## II.- JOMUGA: BIZI BERRIA KRISTORENGAN

Non aurkitu? (36. z.)

Kristau erantzuna (37. z.)

### A. BIHOTZ-BERRITZEAREN EDUKI ETIKO-MORALA

Legea betetzeko bihotz-berritu?

- Lege-haustea eta errua (38. z.)
- Bihotz-berritzea lege-ikuspegitik begiratzearen hutsuneak (38. bis z.)
- Obedientziaren proba (39. z.)
- Egiazko giza balioak onartzeko bihotz-berritu
- Balio horiek gizartean duten indarraren garrantzia (40. z.)
- Gogo oneko gizon-emakumeengan Espiritua ari da (41-42. z.)
- Kristau sinesmena eta giza balioak (43. z.)

Jainkoak eskaintzen digun bizi eta maitasun-misterio barruan dauden lege eta balioak

- Jainkoak egiten digun deia (44-45. z.)
- Dei eragingarri, itxaropentsu, pozemailea (46. z.)
- Agerian jarri behar den deia (47. z.)

### B. BIHOTZ-BERRITZEAREN ALDERDI TEOLOGIKOAK

Jainkoaren maitasuna agertzen duen deia (48-49. z.)

Bizia eskaintzen diguna (50-51. z.)

Sinesmenez onartu beharrekoa (52-53. z.)

Bataioz baietsia (54. z.)

Maitasuna bete-betean bizitzeko (55-56. z.)

Jesusi jarraituz (57-59. z.)

Erreinua eraikitzeko (60-61. z.)

### C. JESUSI JARRAITZEAREN ESPIRITUA

Bihotz-berritzea eta zoriontasunak (62. z.)

Zoriontasunak kristau elkarte osoarentzat dira (63. z.)

Jesusen berri onaren adierazpen dira Zoriontasunak (64. z.)

Zoriontasunen alderdi eskatologikoa eta gaurkotasun historikoa (65. z.)

Errealitate historikoari begira ulertuak (66. z.)

Zoriontasunen irakurketa gaurko munduari begira

- Diruzalekeria eta boterezalekeriaren aurrean (67. z.)
  - Boterea eta dena lortu nahi izatearen tentaldiaren aurrean (68. z.)
  - Aseen handiustearen aurrean (69. z.)
  - Solidaritarik gabeko berekoiaren aurrean (70. z.)
  - Ondoan dugun behartsuaren aurrean (71. z.)
  - Bekatuarekin bat datorren munduan, zorionekoak bihotzez garbi direnak (72. z.)
  - Gogorkeria eta gerraren dialektikaren aurrean (73. z.)
  - Zorionekoak zuek Niregatik erasoka erabil zaitzatenean (74. z.)
- Egian bizi (75. z.)

### III.- BIDEA: NORBERAK IBILI BEHARRA

Pausoz-pauso eta etengabe ibili beharreko bide baten urratsak (76. z.)

Zenbait argibide (77. z.)

#### A. LOIOLAKO IÑIGOREN ESPERIENTZIAK

Elizan dagoen Espirituaren egitea (78. z.)

Espiritu honek bere lana egin zuen Loiolako Iñigorengan (79. z.)

Lur jota egotetik ondorio handiak dituen erabaki sendora

- Argitasunaren esperientzia (80. z.)
- Gogoeta eta lehenaren mina (81. z.)
- Hoberenak erakarria (82. z.)
- Barruko zatiketa eta borroka (83. z.)
- Jainkoaren graziaz, beste gizaki bat izaten hasi zena (84. z.)
- Haustura eta askatasuna (85-86. z.)

#### B. NORBERAREN BIDEARI JARRAITZEA (87. z.)

Behin ere ez dago lekurik etsipenerako (88. z.)

Norbere estimazioa berreskuratzea (89-90. z.)

Geldialditxo bat egin isiltasuna lortzeko (91-92. z.)

Beste ahotsak entzun eta beste munduak aurkitzea (93. z.)

Bereizkuntza eta erlijiozko elkarrizketa (94-95. z.)

Erabakiaren eta tentaldiaren ordua (96. z.)

Elkarri lagunduz elkar indartzearen ordua (97. z.)

Otoitz ibilaldi bat (98-99. z.)

Sakramentuzko elkarketa Elizarekin (100-102. z.)

Bizitza bere osoan hartuta ekiteko ordua (103-104. z.)

#### **IV.- JAINKOAREN DEIARI OIHARTZUNA (105. z.)**

Apaizei (106. z.)

- Ministeritzaren grazia berpiztea (107. z.)
- Poztasun baketsua eta elkarri laguntzea (108. z.)
- Lekukoak (109. z.)

Familiei

- Familiaren garrantzia (110. z.)
- Maitasuna eta familiekiko istiluak (111. z.)
- Familia elkartua baina zabalik dagoena (112. z.)
- “Ezeko eliza” bat (113. z.)

Adinekoei

- Burujabetasuna eta bihotz-berritzea (114. z.)
- Zuzentasunaren zerbitzuan, Jainkoari begira (115. z.)
- Laguntza eman bizipozari (116. z.)

Gazteei (117. z.)

- Zuen zailtasun eta oztopoak (118. z.)
- Kontraesanaren arriskua (119. z.)
- Jesukristo gaur ere baliagarri (120. z.)

Gure edadetuenei

- Biziak zuengan dirau (121. z.)
- Egizue on (122. z.)
- Izan uste on Jainkoagan (123. z.)

Bereziki sagaraturik zaudeteno (124. z.)

- Zoriontasunen espirituan (125. z.)
- “Kontrastagarri” zaretan lekukoak (126. z.)
- Errukian (127. z.)

Kristau elkarteei (128. z.)

- Norberaren jatortasuna (129. z.)
- Elkarteko bihotz-berritzea (130. z.)
- Iradokizun berezia (131. z.)

Urrunduei eta fedegabekoei (132-133. z.)

**AZKENA**

## SARRERA

### Garizuma eta bihotz-berritzea

1. Berriro ere, aurtengo Garizuman, bihotz-berritzera gonbidatzen gaituen ahotsa entzungo dugu Elizaren barnean. Jesusek bezala hots egingo du Elizak ere: “Hurbil da Jaungoikoaren erreinua. Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi berri ona” (Mk 1,15). Ahots ezaguna da, noski, eta, ezaguna delako, askori ohartu gabe pasako zaio. Nolanahi ere, ahots honek izango du arrisku bat: bere mezuak mezezi duen arreta ez sortzeko arriskua.

Hala ere, Jainkoaren erreinura itzultze hau, baztertu ezineko osagaia da kristau bizitzarako. Hori ahaztuz gero, sentidu gehiena galtzen du gure Bataioak eta baita kristau elkaratearen kide izateak ere. Bihotz-berritzeak, izan ere, zera esan nahi du beste edozeren gainetik: Jainkoarengana sinesmenez eta maitasunez itzultzea. Eta esan nahi du, gainera, maitasuna hartzen dugula lege nagusi geure kristau bizieran eta geure anai-arreba diren gizon-emakumeekiko harremanetan.

### Kristau bizitza tinkotu

2. Aurreko urteetan, Garizumako gogoetagai batzuk eskaini dizkizuegu, zuei Piztueraren Pazkoa pozik ospatzen lagundu nahirik. Kristau izatearen oinarritzko gaietan jarri dugu arreta<sup>1</sup>. Gure asmoa, kristau bizitza tinkoago hezur-mamitzen laguntzea izan da, bera indartuz eta bizitza horren haziera eta garapena sustatuz. Ildo beretik doa, kristauaren bihotz-berritzeari eskainia dagoen aurtengo gogoetagai hau ere.

### Bihotz-berritzearen premia larria

3. Fededun izatea zer den oharturik bizi nahi duenak, bihotz-berritzearen premia larria beti bizturik eduki behar du. Bihotz-berritzea ez da behin betirako egin eta lortzen den zerbait. Bizitzari berari bezalaxe gertatzen zaio: bizitza bat

---

<sup>1</sup> Bereziki, ondorengo titulu hauek ekarri nahi ditugu gogora: *Salbamena eta kristau bizitza. Poza eta itxaropena* (1990); *Jesukristori Eliza honetan jarraitzea* (1989); *Fededun izan federik ezak jotako egunotan* (1988); *Gizonaren egiazko aurpegi bila* (1987); *Jesukristoren Jainkoagan sinestea gaur egun* (1986); *Jesusi jarraitzea eta kontzientzia moralala* (1985); *Giza istiluak eta kristau adiskidetzak* (1984); *Eliza, elkarte ebanjelizatzailea* (1983); *Kristauaren jarrera gaur egungo krisialdiaren aurrean* (1982); *Kristauaren bihotz-berritzea eta gizarte-politika ekintza* (1979); *Itxaropen aldia* (1978); *Kristauak eta Eliza gaurko gizartearen aurrean* (1977); *Gizarte berri bati buruz kristau jokabide batzuk* (1976); *Fedea, bihotz-berritzea eta baketzea* (1975); *Gure giza eta kristau izatera Jesukristoganako sinesmenaren argitan* (1973).

bera izanik ere, egoera berriak sortzen zaizkio eta egoera horiei erantzuteko deia darama berekin. Honekin ez dugu inolaz ere ukatzen, izan badirela gure giza bizitza nabarmenago marka dezaketen une seinatuagoak. Horrela gertatzen da gure erlijio-bizitzan ere, eta, zehatzago hitz eginez, kristau bihotz-berritzean ere bai.

### **Bihotz-berritzearen ahalegina eta poza**

4. Baliteke, bihotz-berritzeko deia aipatze hutsak, zenbaiti saiatu beharra eta etena ekartzea burura, berritze eta garbitze lana saiaturik eta etenez egiten bait da beti. Bihotz-berritzearen ukapen alderdia da hori; beharrezkoa, Jainkoagandik eta anai-arrebengandik urrunduta garen neurrian. Bere bekatua ezagutzen duenak bizi behar duen penitentzia eta barne sufrimentuarekin erabat lotuta dago bihotz-berritzea.

Baina agian ez ditugu neurri berean aurkitu eta bizi izan, bihotz-berritzeak duen poza eta berekin dakarren bizi eskaintza. Bideak dituen zailtasunei begira eta begira, ez ote dugu ahaztu, gero, bidearen azkenean dagoen helmugako poz bete. Oraindixe aurreratu nahi dizuegu: egiazko bihotz-berritzearen emaitza, bizitza beteago eta pozgarriagoa da. Garizumako bidearen buruan, Jaunaren Piztuerako Pazkoaren ospaketa alaiak, horrela bakarrik lortzen du bere sentidu eta esanahia.

### **San Inazioaren Mendeurreneko urte barruan**

5. Jainkoaren eta Elizaren izenean egiten dizuegun deia, kristau bihotz-berritzea bizitzeko deia, Jesukristori jarraitzeko gonbitea da derrigorrez. Aurtentzen, ordea, bihotz-berritzeko gure dei honek, marko berezia du. Loiolako San Inazioaren jaiotzako V. Mendeurreneko urtean egiten dizuegun deia da. Hark izandako bihotz-berritzearen esperientzia pertsonala, bihotz-berritzeko bidean maisu eta gidari bezala erakutsitako doktrina eta esku ona, Gogo-jardunen bidez batez ere, oso emankorrak izan dira Elizaren bizitzan.

Ez daukagu inolako dudarik: berak lagunduko digu Aitarenean etxetik, gehiago bihotz-berritzeko asmoz burutuko ditugun ahalegin guztietan, bakarka nahiz geure kristau elkarteetan.

### **Pastoral Idazkiaren edukia**

6. Lau atal ditu Pastoral Idazki honek:

Lehenengo atalean, *Abiapuntua: giza bizitza, hondaturik* titulupean, beste edozein gauza baino lehen *Nork bere buruarekin topo egitea* erraztu nahi litzaiteke (7-16. z.). Nork bere buruarekin topo egite horrek, aldaketa pertsonal bat burutu beharra, eta berorren nahia eta esperantza sortzen ditu. *Norberaren ezagutza* titulupean (17-26. z.), ibilbide bat eskaintzen dugu, norberak aurki dezan, ez bere bizitzan daukan zauri pertsonala bakarrik; baita guztion barruan gordeta dagoen aldatu nahia ere. Hurrengo atalean, *Gaurko munduaren au-*

*rrean ongi kokatuak* (27-35.z.), libre eta kritikoki jokatu beharra baiezen dugu, gizarteari nagusitu zaizkion zenbait portaeren aurrean.

Bihotz-berritzeak, izateko eta iharduteko modu berria sortu nahi du. Horixe da bigarren atalaren hausnargaia: *Jomuga: bizi berria Kristorengan. Bihotz-berritzearen eduki etiko-morala* (38-47. z.), osagai beharrezkoa da gogoeta honetan, kristau bihotz-berritzearen aberastasun guztia horretan agortzen ez bada ere. Hain zuzen, horrez gainera, beharrezkoa da *Bihotz-berritzearen alderdi teologikoak* aurkitzea (48-61. z.), horretan bait dago berorren aberastasunik bereziena. Alderdi horiek zorientasunetan lortzen dute beren indar guztia, hauetan zehazten bait da *Jesusi jarraitzearen espiritua* (62-75. z.).

Hirugarren atalean, abiapuntutik helburura bitarteko bidea adierazten dugu, *Bidea: norberak ibili beharra* deitzen duguna. *Loiolako Iñigoren esperientziek* (78-86. z.) lagun dezakete, bakoitzak egin behar duen bihotz-berritzeko ibilbidea bilatzen, *Norberaren bideari jarraitzea*, alegia (87-104. z.).

Eta, azkenik, zera nahi dugu: *Jainkoaren deiaren oihartzunak* (105-133. z.) eraman dezala bihotz-berritzearen mezua bakoitzaren bizitzara edota gure elkarte bizitzara, bizitza horren modu ezberdinetara egokituz. Era horretan errazagoa izango da denontzat, mezu horren deia eta mamia jasotzea. Horra, laugarren atalaren asmoa.

# I.- ABIAPUNTUA: GIZA BIZITZA, HONDATURIK

## A. NORK BERE BURUAREKIN TOPO EGITEA

### **Pertsona osoari dagokion aldaketa**

7. Bihotz-berritzea, egoera batetik beste egoera hobe batera aldatzea da. Bihotz-berritzen denak aurrera pauso bat ematen du bere izan nahiaren garapean. Bere bizitzaren alderdi gaiztoak aurkitu ondoren, horietatik ihes egiten du, ez noski nolahalako urraturen bat nozitu gabe. Baina hori egiten badu, biziera beteagoa iristeko asmoz egiten du.

Bihotz-berritzen denak, argi-argi ez bada ere, nolabait behintzat hasieratik ikusten du, egin nahi duen edo egin duen aldaketak pertsona osoa hartzen duela. Kontua ez da, beraz, gaizki dagoen zerbait aldatzea. Kontua, bizitzaren aurrean beste era batean jartzea da, eta bere garapen beterako on dela uste duenarekin koherentzia handiagoa lortzea.

### **Egoera kaltegarritik mesedegarrira**

8. Bihotz-berritze bidean, beraz, argiago edo ilunago, geure egoera ikusten dugu, eta egoera hori kaltegarria iruditzen zaigu. Bide batez, lortu nahi dugun egoera mesedegarria ere sumatzen dugu. Horrela sortzen da guregan, kaltegarri zaigunetik irten eta osabetetzen gaituen mesedegarrira itzultzeko gogoia.

Erljio ikuspegitik begiratu, bihotz-berritzea bekatuaren kontra-kontra-koa da. Bekatua, Jainkoari atzea ematea da (a-versio), bizitza munduko errealtate gaiztoetara zuzenduz (con-versio). Bihotz-berritze edo konbertsioak, erlijio aldetik ikusita, pertsona Jainkoaren aurrez aurre jartzen du, Haren maitasun betearen uste ona emanez.

### **Planteaketa egitea zaila**

9. Norbere egoera kaltegarriaz jabetu eta, ondorioz, bere bizitza kaltetzen edo hondatzen ari denaren aurrean hutsunea, gabezia, nazka eta beldurra bera ere sentitzea: horixe da onenean esperientziarik garrantzizkoena, eta zailena ere bai, bihotz-berritzearen ibilbideari ekiteko. Bizi dugun kultur giroak ez du esperientzia hori errazten. Ez du mesede handirik egiten, oinarritzko galderak planteatu ahal izateko: nondik gatozen eta nora goazen, gure bizitzaren sentidua, zer den on eta zer gaizto, beste gizakiekiko gure harremanak... (ikus *Gaudium et spes*, 10. z.). “Pentsakera arinak” eta fundamentalismo ororentzako deskonfiantzak ez dute uzten, galdera hauek kontzientzi barrura sartu eta halako planteaketa batzuk sor ditzaten; planteaketa horiek, garrantzizkotzat jo arren, zapuztu ere egin ditzakete trazedentalegiak direlako.

10. Baina, gizakiak ahaztu al ditzake arinki galdera hauek, bere burua ukatu gabe?, gizaerakoak ez diren beste izate moduetatik gehien bereizten duen zerbait guztiz berea ukatu gabe? Zertan gelditzen da giza bizitza, bere izan-



arrazoiaz galdetzeko gai ez bada, eta bere izatea gizaeratzen dioten balioak zeintzuk diren galdetzeko gai ez bada?

## **Bilaketa jatorra**

**11.** Bakoitzak bere barruarekin egiazalea izan behar du, bere bizieraren kalteko aldea ikusteko. Egiazaletasun punturik ez den tokian, ez dago bihotz-berritzeko aukerarik. Argiaren kontrako bekatuak ilunbetan murgiltzen du bizitza. Gizon-emakumeak, bizitza entretenigarri labur bihurtzen dioten ikuspuntu motzak baino zerbait gehiago behar du.

Egiazaletasuna ez da, gainera, beste gabe, egia teoriko batzuk onartzea ongia eta gaizkiari buruz, zuzen eta zuzenkontrakoari buruz, eta Jainkoari edota Jesukristori buruz ere; zerbait biziagoa da egiazaletasuna. Bere burua engainatu nahi ez duenaren jarrera da; bere bizitzarako argia bilatzen duenaren jarrera; eta, beraz, ez dio atzea eman nahi bere buruaren egia aurkitzen lagun diezaiokeen ikuspegi oinarritzokoiari. Fededunak badaki, gainera, Jainkoari salmogilearekin esaten: “Zuri bihotz leiala atsegin zaizu” (Sal 50, 8).

Erabat lokartu ez den sinesmen erlijiosoa edo erabat itzali ez den kontzientzia morala, garrantzi handiko abiapuntu izan daitezke. Bi horietatik planteaketa serioak sor daitezke, bakoitzak bizi duenaren egiari buruz.

## **Fatalismoa ala itxaropena**

**12.** Nork bere barruko okerra eta kaltea aurkitu eta aitortzeak ez gintuzkete etsipenaren edota ezinaren mende murgildu behar. Eta are gutxiago alferreko errudun konplexu agor batean. Kristau fedeak, behintzat, ez du bekatua edo injustizia era horretan irakurtzen. Gizon-emakumeen kristau bokazioak ez du halaberrez etsitzen bekatuaren eta injustiziaren aurrean, betirakoak balira bezala. Ikusmira itxaropentsuagoa eskaintzen du.

Gizon-emakume bakoitzaren barruan, askatasuna bilatzera eragiten dion indar bat ari da, gizon edota emakume osabetea izaten uzten ez dion morrontzatik ateratzeko. Benetan biziarengan sinetsi eta bizia benetan maite duenak, sinetsi beharra dauka, justiziara itzultzeko aukeran ere. Gizakiarengan, dena ez da okerra eta bekatua. Badira berarengan salbamen-indarrak ere, Espirituaren egitez gu askatzen ari den Jainkoa erakusten digutenak. Guztioi esaten digu Jainkoak: “Zure etorkizunak badu itxaropena” (Jr 31,17). Norbere buruarekin egiazale izateak, geure askatasuna egiteko gai garela ikustea eskatzen digu; eta ez geure giza izatea desegiten digun okerraren ilunbea bakarrik ikustea.

## **Gizartearen ala pertsonaren lehentasuna?**

**13.** Geure gizatasunaren aurpegi itxuragaldia aurkitzekoan, gaurko gizon-emakumeok badugu oraindik beste zailtasun sakon bat ere, geure erantzukizun pertsonala ezbaian jar diezagukeen zailtasuna: “gu geu” al gara, ala gizartea da guregan ari dena? Noraino iristen da guk daukagun askatasuna?

Gizartea beste era batekoa balitz –hala pentsatu eta esaten ere dugula dirudi–, geu ere beste era batekoak izango ginateke. Alda bedi gizartea pentsamolde eta jokaera zuzenago eta zintzoagoetara, eta besterik gabe aldatuko da guretako bakoitza ere. Bizi garen mundu honetan pertsonalki bihotz-berritzea, ez da posible ikusten. Hori, gehienez ere, heroi eta santuei bakarrik eska daki-ke, izaki aparta batzuei; baina herritar gehienok ez gara apartak.

**14.** Inportantea da oso, arazo honen errealitateaz eta sortzen duen kezka jabetzea. Ez da kasualitate hutsa: gure gizarteko bizigiro sozio-kulturalean askotan baieztu eta errepikatzen da, gizaki bakoitzaren bizitzak balio pertsonala duela; baina, agian inoiz baino garbiago ikusten da, gizaki bakoitzaren bizitza gizarteari eta kolektiboari lotua dagoela.

### **Pertsonaren duintasuna baiezte**

**15.** Guzti horregatik, hain zuzen, pertsonalki bihotz-berritzera dei egiteak, mundu honetan bizi den pertsona bakoitzaren balio eta duintasunean sinesten dugula esan nahi du. Jainkoak eta giza izateak berak, pertsona bakoitzarengan jarri duten konfidantza berreskura erazi nahi digu dei horrek. Bizitza pertsonal bakoitza, norberarena eta besteena, salbatzeko egintza indartu erazi nahi digu.

Ez dugu etsi nahi, gaurko gizon-emakumeak hezur-mamizkoak bai, baina espiriturik gabeko itzal huts bihurtuta ikustean, ideia, irizpide eta eragin inpersonalen atzaparretan erabiliak eta manipulatuak. Badakigu jakin, hori lehenengo nozitzen dutenak, beren eskuetan duten ahalmenaren nagusi sentitzen diren horiek berak direla.

Baina kristau fedea gizon-emakume bakoitzarengan sinesten du, eta horregatik egiten die bihotz-berritzeko deia; bizira, balioetara, zuzentasunera, azken batean Jainkoarengana, itzul daitezten, gizarte barruko anonimatuan galduta geratu gabe.

### **Gure munduaren barruan**

**16.** Nolanahi ere ez dugu ahaztu nahi, gure bizitza bi indarren emaitza dela: geuk nahi dugunaren, eta guregandik kanpoan dagoen “beste horren” eraginaren emaitza, oharkabean barrura sartzen bait zaigu kanpoko “beste hori” eta barrutik egiten du bere lana.

Erantsi beharra daukagu, ordea, horrek kalte bakarrik ez digula egiten bere gizakonstrako indarrez edo, hizkera erlijiosoz esanda, bere “gaizpidezko” indarrez. Mesede ere egiten digu, giza proiektu jator bati dagokion gizadi bate-tarantz bultzatuz. Fededunok proiektu hori ezagutzen baldin badugu, Jainkoak berau Jesukristorengan agertu digulako ezagutzen dugu.

## **B. NORBERAREN EZAGUTZA**

**17.** Benetan bihotz-berritu nahi badugu, geure egoera ezagutu beharra daukagu. Non gauden jakin behar dugu, nora joan nahi dugun jakitera iristeko. Berehalako eginkizuna dugu, geure izate pertsonala den bezala ezagutzea; izate hori, alde batetik, neure izate sakonenaren emaitza da, jakin edo ez; eta, bestetik, bizigiroko eragin eta presioen emaitza.

Nor eta zer naiz ni? Zer da gizartea eta nola erasaten dit? Zer-nolako barne gonbidapenak sumatzen ditut, gonbidapen onartu beharrekoak, baldin eta niregan eta gizartean biziera gizaerakoagoak sortarazi nahi dituen espiritua ito nahi ez badut? Guretako bakoitzarengan, zer dago gordea?

### **Berehalakoaren premia larria eta bizitzaren esanahiari buruz galdetzea**

**18.** Berehalakoaren beharrak eta premia larriak eragiten digu. Egiteari ekin beharra dago, hainbat egoera menderatu beharra, pentsatutako helburuak lortu beharra. Gure bizitzak ez du agorra izan behar; ernamuin emankorrek daramatza beregan. Erantzukizun batzuk berez etortzen zaizkigu, eta ezin ditzakegu baztertu, geuretzat eta besteentzat makur jokatu nahi ez badugu. Hori da gure bizitza.

Hala eta guztiz ere, ezin dezakegu albora utzi, argiune eta barealdi batzutan zorrotz sortzen zaigun galdera. Hau da gure bizitza, bai, baina gure bizitza guztiak, hori izan behar al du? Egin beharreko guztia egin ondoren, askotan ohartzen gara, ez zela hori bakarrik guk izan nahi genuen guztia, eta halako tristura eta nahigabea geratzen zaigu barruan. Zer esan nahi du, barrua betetzen digun nahigabe triste horrek? Zer bait adierazi nahi du, inolaz ere, zerau ikus-teak: ez dela berdin egin beharrekoa “burutzea”, eta lortu nahi dugun giza bizitzaren “betetasuna”.

### **Gero eta gehiago eduki nahia eta edukitzearen hustasuna**

**19.** Bizitzeko, gauzak behar ditugu, eta, konkretuki, beharrezko ditugu ekonomi ahalbideak. Barruan berez daramagun osatu-ezin horrek, osagarria bilatzen du “geureak” deitzen ditugun gauzetan. Segurantza handiagoa sentitzen dugu, geure egin dugun izadiaren errealitatean oinarrituz gero, horretarako zenbait aldiz izadia hondatu eta desegin baldin badugu ere.

Baina, bide batez, ederki ikusten dugu, “gure bizitza salbatuko zutela” uste genuen gauza horiek ez dutela salbatzeko gaitasunik, eta horietan jarri dugun ustea gehiegizkoa izan dela. Etsita ikusten dugu, oker geundela: ez gara gehiago, gehiago edukitzeagatik.

Horri erantsi behar zaio sarritan, salaketa batek sortzen digun kezka: daukagun hori ez dela geurea alegia, era txarrean lortu bait dugu besteren bizkarretik, pertsona jakin batzuen edota gizartearen bizkarretik. Hori al da edukitzeak eta gero eta gehiago edukitzeak bizitzari ematen dion sendotasun tinkoa?

## **Maitasunaren ilunbea eta “Zu” traszendenteari dei egitea**

**20.** Giza bihotzak, elkartasun eta maitasunerako deia sumatzen du. Gorputza eta sexua ere ez daude pertsonarteko elkartasun horrentzat itxiak; areago esango genuke, elkartasun hori bideratu eta, neurri batean, eskatu egiten dute. Hala ere, maitasunak txertaturik duen bereganatik irteteko dinamika hori, oso erraz jiratzen da bereganantz, bere buruaren atsegin edukizale batean eroriz, eta besteak bere barrukoenik eta pertsonalenik duen hori edukigai eta erabilgai bihurtuz, egiazko maitasunaren kontra, noski. Betikoak uste ziren erantzukiak moteldu eta eten egiten dira. Betikoak zer esan nahi duen ulertzeko aukera gehiegirik ere apenas gelditzen den.

Maitasuna bizitzeko giza era jatorrak, elkartasunezko, oparizko eta erantzukizko jarrera eskatzen du. Hala ere, era honetan bizitako maitasunari sortzen zaizkion nahigabe eta mugak, ezaugarri osasuntsuak izan daitezke. Maitasunaren giza traszendentziak, ez al du erakusten beste traszendentzia “absolutuago” bat? “Maitasuna” deitzen dugun horren paradoxa eta kontraesanek zer pentsatua sortu behar ligukete.

## **Heriotzaren kontra eta heriotza sortzen lankide**

**21.** Ez diogu heriotzari aurre egin nahi. Izugarria gertatuko litzaiguke, gure senidearen hiltzaile izatearen pisua bizkarrean eraman beharra. Esaten dugu denek daukatela bizitzeko eskubidea, eta duintasunez bizitzeko eskubidea eduki ere, bai hemen eta bai hemendik kanpora. Badakigu, ordea, ez dela horrela gertatzen. Ez dugu pentsatzen jarri nahi, zenbaterainoko errua izan dezakegun heriotza badagoelako eta izaten mantentzen delako. Jator eta sakon hausnartzen hasiko bagina, auskalo zer-nolako ondorioak etorriko litzaizkioken gure barne-segurantzari eta gure portaera ekonomiko, sozial edo politikoari. Horrek beldurra ematen digu.

Egia da: “kanpoan” ikusten dudan gaizkia, dei berezi bihur daiteke, “niregatik” gertatzen den gaizkia eragotzi dezadan, eta anai-arrebekiko maitasun jator batera itzul nadin. Agian horrek, ni neu heriotzaren egile izan naizela aitortzera ere eraman nazake, esan ezinezko arrazoirengatik estali nahi izan badut ere: heriotza hori ezkutuan edo ezagutu gabe gelditu delako, edota hildakoa ez delako gai egintza hiltzailea salatu edo bizi-eskubidea hots egiteko.

## **Familiako etsialdiak eta sozialtasun falta**

**22.** Normalean geure familietan ikasi dugu maitatzen. Familian aurkitzen ditugu oraindik ere, maitasunezko elkartasunean bizitzea zer den adierazten ditugun ezaugarri berezi eta adierazgarrienak. Hala eta guztiz ere, familian senti daiteke komunikaziorik eza era mingarrienean, hurbiltasuna eraman-ezin bihurtzen bait da, eta egunero elkarrekin bizi beharra erremin. Inoiz egon ez zen edo, egon bazen, behar bezala landu eta babestu ez zen maitasun lokarriaren etenak, agerian jar dezake bihotzaren maitatu nahi eza eta bata besteari eman nahi eza.

Hori horrela izanda ere, familiako maitasuna, entzun eta aditu behar dugun deia da gaur ere. Senar-emazteen arteko maitasuna, eta guraso eta seme-alaben artekoa. Pertsonak ezin du etsi bere bakar izatean gordeta, irekitasun sozial bati tokirik egin gabe. Eta irekitasun sozial horren lehen urratsak familian ematen dira.

Egoismo bakarzalea ez da gizakiaren bokazioa. Ez ote dira ikasi behar askatasunaren ederra eta sozial araudiaren eskakizunak familian, toki aparta horretan?

### **Bakarkeria egoista eta solidaritzarako erabakia**

**23.** Herria zerbitzatzearen duintasuna txalotu dugu; baita alor politiko-sozialean konpromezua bihotz zabalez bizitzea goretsi ere. Gizarteak ahalegina egin du agintea guztien onerako zerbitzu bihurtzen eta herritar guztien eskubi-deak errespetatuak izan daitezzen, horien bizi maila, sinestea, jatorria, alderdi politikoa zein den erreparatu gabe. Hala ere, planteaketa hauen balioaz, zalan-tza eta ezuste asko sortu da gure herriko hainbat jenderengan.

Gertaera horren aurrean ez ditugu geure begiak itxi behar. Dei berezia izan daiteke hori, begira hasi gaitezen, ea zenbateraino bilatzen dugun herri elkartearen mesedea eta elkarte osatzen duen pertsona bakoitzarena, bizi garen edozein gizarte mailatan. Batez ere, zenbateraino bilatzen dugun langabekoen etorkizuna, lanik lortu ez duten gazteena, behartsuena, baztertuena. Pozik gelditu ote gaitzke, teoriarik eta praktikan zera uste izanez, zukurua izateko eta probetxua eman erazteko dagoela gizarte, neure mesede hutserako?

### **Eskuhartzeko askatasun eta sektakeria**

**24.** Bizi garen gizarte honetan pertsona edo talde bakoitzak askatasunez pentsa eta adieraz dezake bere iritzia giza bizitzari buruz, biziera soziala antolatzeke erari buruz eta haren arazoak konpontzeko bideari buruz. Elkarrizketa politiko-soziala da, elkar ulertzeri iristeko eta erabaki publikoak hartu aurretik berauek eztabaidatzeko bidea. Partaidetza demokratikoaren erreglen arabera eraikitako erakundeek, guztien interesak baliarazteko bide egokiak eskaintzen dituzte. Bakoitzak bere pentsamoldeei eusteko egokiera ere eskaintzen dute. Guzti horiek oso balio mesedegarriak dira, pertsona eta bere duintasuna errespetatzen duen gizarte batean.

**25.** Hala ere, jarrera setati batzuek oso zaila eta ezinezkoa ere bihurtzen dute bakezko elkarbizitza: amenazu, bortxakeria eta hilketen indarkeria fisikoa erabiltzen dute, eta indarkeria morala ere bai erabiltzen dute gezurraren bidez, makurkeria interesatuek eta herriaren iritzia behartuz. Askok gara, herriko gehiengo handia, pentsatzen dugunak, horrela ezin daitezkeela lortu gure herriarentzat eta, batez ere, belaunaldi berrientzat behar ditugun ongi-izate eta aurrerapen helburuak.

Eta ez dugu ahaztuta utzi nahi, pertsona jakin batzuk direla indarkeriazko eragin honen hariak erabiltzen dituztenak. Pertsona jakin horiek, ongia eta

gaizkia baino harutzagoko maila batean ote daude? Beren kontzientziak ez ote du tokirik planteaketa etikoren bat egiteko, gizakiaren balio eta duintasunean oinarrituz, edota Jainkoaren legean bertan oinarrituz? Ez ote daukate inolako zirrikiturik zalantza txiki batentzat, edo beren planteaketa eta jarrera doktrinal eta estrategikoak berrikusteko? Horiei ere oroitarazi nahi diegu ez dagoela inolako arrazoirik norberaren kontzientzia etikoaren duintasuna bazterrera uzteko eta zor zaion leialtasuna zokoratzeko.

## **Kristau elkarteen nahia eta izatea**

**26.** Gure kristau elkarteek esaten dute, elkarte fededunak nahi dutela izan, bizi diren eta osatzen duten herriaren barruan Jesusen Ebanjelioaren egia teoriko eta praktikoaren testigantza emateko. Elkarte ebanjelizatu eta ebanjelizatzaileak izan nahi dute, gizadi baketu baten ezaugarri biziak, itxaropen eramaile, behartsu eta baztertuentzat batipat, bizi-arnasa bizitzarekiko fedea galdu dutenentzat eta bere baitan itxitako bizitzaren ahulezia nozitzen dutenentzat. Izan nahi hauek eragin akuilagarri izan behar lukete, Ebanjelioko konpromezuak behin eta berriz onartzeko.

Baina horrela gertatzen al da? Arrisku bat daukagu: Eliza buruz jantziagoa izan daitekeela, baina ez bihotz-berrituagoa. Munduaren bihotzean oraindik ere oso ahula da Ebanjelioaren alkarrikapena eta testigantza. Gizarte zatitu eta borrokatu baten barruan bakegile izan nahiak ez ditu oraindik bide egokiak urratu. Gure fedetik sortzen diren poza eta itxaropena ez dira oso nabarmen azaltzen gizartean. Baztertuen aldeko eta baztertzearen kontrako konpromezuak ez du gure biziera aldatzeko indarrik. Jesusen hitzok galdera zorrotza dira oraindik ere: “Zuek zarete lurraren gatza. Baina gatza gezatzen bada, zerekin gazituko da?” (Mt 5,13).

## **C. GAURKO MUNDUAREN AURREAN ONGI KOKATUAK**

### **Errealista eta kritikoak izan, geure burua hobeto ezagutuz jokatzeko**

**27.** Lehen ere esan dugu. Izatez garena, ekitera eragiten diguna, ez da gure nahi pertsonalaren emaitza bakarrik. Kultur bizigiroa hortxe dago, eta pertsona bakoitzari eragiten dio, gogor lotzen gaitu, askatasunez jokatzeko gure aukerak ugaritu egiten ditu, baina baita mugatu ere. Une historiko-kulturala ere, eta gure herriarena bereziki, oso interesgarria zaigu gure konpromezuari eskaintzen zaizkion iharduntokiak ezagutzeko.

Horregatik, garrantzizkoa iruditzen zaigu, zuei eskatzea, begiak zabaldu eta errealitatea den bezala ezagutu dezazuela, bere balio eta kontrabalioekin; horrela, errealitatearen aurrez-aurre jartzen zaretenean, bereizketa egokia egiten asmatuko duzue zeuen sinesteen egiaren arabera. Horrek, noski, sineste horiek eduki, oinarritu eta argitzea eskatzen du.

**28.** Ezin daiteke besterik gabe ontzat eta baliozkotzat eman ikusten dena, esaten edota egiten dena, guztiek ontzat ematen dutelako, komunikabide sozialek argi eta garbi edo erdi-ilunbetan ematen duten mezua delako, edota agintea

daukatenen politikak hala agintzen duelako bere gobernu-lege eta erabakien bidez. Beharrezkoa da “egia betetzea” (Jn 3,21) eta “egiaren bidetik ibiltzea” (2 Jn 4).

## **Atzokoan itxita geratu gabe**

**29.** Inportantea da zenbait esaldiren barruko gezurra azaltzea, horrek ordainetan deskonfidantza, errukia eta mesprezua sortzen badizkigu ere; gezur horiek xalo-xalo onartuz gero, bertan behera gera bait daiteke hasieratik, sustatu eta lagundu nahi dugun bihotz-berritzeko prozesua. Nola edo hala eragotzi beharra daukagu, pentsamolde eta jokalege kolektibo horiek gure barnean kabia egin ez dezaten eta erabat galgaturik utzi ez gaitzaten.

Horren ondoan garrantzizkoa da, gizartean ari den Espirituaren mezua jasotzea ere, etorkizunera zuzentzeko bide berriak eskaintzen bait dizkigu. Bizi garen mundu hau, lehen ezagutu genuenetik eta ohituta geundenetik oso ezberdina bada ere, ez da halabeharrez hura baino txarragoa. Ez zaizkio falta ontasunaren eta egiaren haziak. Guk hazi horiek aurkitu eta jaso egin behar ditugu.

## **Sineste tinko batzuk**

- ***Zientzia eta fedea***

**30.** Ez da egia zientziak frogatu duela, Jainkoarekiko sinesmena, gainditua geratu den iraganaren indarra dela, eta, beraz, galtzera kondenatua dagoela. Zientziak ez du ahalmenik Jainkoaren izatea baiezteko edota ukatzeko. Hark bere mugak aitortu beharra dauka. Kontrakoa esatea gezurra esatea da, inor engainatzeko erabili behar ez litzatekeen gezurra. Harriturik eta esker onez aitortzen ditugu, zientzilariek beren esparruan eman dituzten aurrerapauso izugarriak. Baina esan beharra daukagu baita ere, giza izatearen sentiduari dagozkion arazoak ez direla zientziaren esparruan sartzen.

Eta Jainkoari ere bere duintasuna itzuli beharra daukagu: Bera gure zerbitzura eta gure interes galkorren zerbitzura jarri nahi horretatik askatuko duen duintasuna.

- ***Jainkoaren heriotza eta giza duintasuna***

**31.** Ez da egia, gizakia askatzeko eta “Jaungoikoaren”, “zeru-lurren Jaunaren”, menpeko eginez beronek galdu duen duintasuna berreskuratzeke, beharrezkoa denik, Jainkoaren heriotza. Jesukristorengan ezagutzera ematen zaigun Jainkoa, gizakia salbatu eta askatzen duen Jainkoa da. Sasi-jainkoen morrontzara makurtzen uzten ez dion Jainkoa. Zuzenkontrakoz aberasten diren ahaltsuei kontra egiten dien Jainkoa.

Eta apaltasunez onartzen dugu Espirituak egiten digun deia: Jainkoaren aurpegi jatorra aurkitzera egiten bait digu dei, eta gizakia desegiten duten indarrekin ezkondua egongo litzatekeen gezurrezko Jainkoa baztertzer.

- ***Modernitatea eta balio etikoak***

**32.** Ezin daitezke erre, gizakiaren –gizaki ororen– salbamenerako ezinbestekoak diren balio etikoak, modernitatea omen denaren aldare gainean. Hori gehiegizkoa litzateke. Bide horretatik, ahaltsuek eta horretarako zoria dutenek izango lukete, beroiek bakarrik alegia, beren giza duintasuna baiezteko aukera aparta. Alderantziz, argi ibili behar dugu: modernitatearen ulerkera gezurrezko eta “arin” baten menpean gizakia galtzeko arriskua bait dago, eta ulerkera horrek zoritxarrekoen duintasunari eusten dioten oinarri “beharrezkoenak” ezabatu egiten bait ditu. Horrek ez du esan nahi, berezi behar ez direnik betiko balioak, gure garai honetan ere balio dutenak, eta historian zehar erantsitakoak, historiarekin igaroko diren balioak.

- ***Atsegina eta ukapena***

**33.** Gizakiari ebakitze larria egingo litzaioke, beronen bizitzaren helburu bakar bezala atsegina gozatzea jarriko balitzaio, une edo egoera bakoitzak eskain diezaiokeen atsegin gehiena gozatzea. Atsegina ona da, berez. Baina lortu beharrekoen ranking batean ezin daiteke lehen tokian jarri. Bere bizitzako jokamolde garrantzizko bezala solidaritza hartzen duenak, badaki atsegina gerorako uzten eta berari uko egiten. Poza eta alaitasuna askoz ere gisa-esperientzia sakonagoak dira, atsegin hutsa baino. Poza eta alaitasuna, pertsonen arteko solidartzarekin lotuak daude; pertsona horien azken bokazioa, bokazio betea, bizia bera bait da, eta ez heriotza.

- ***Eduki eta izan***

**34.** Akats handiegia da, pertsonaren balioa bere diru eta ondasunetatik neuritzea. Edo horiek ematen duten ahalmenetik. Pertsonaren duintasuna balioaldurik geratzen da, daukanarengatik maitatzen baldin bada, eta ez bere izateagatik. Gero eta gehiago eduki beharrak erabat kateatzen du bide horretan sartzen dena. Ondasun materialak ez dira txarrak. Jainkoaren sorkari dira, gizon-emakumeen eta giza elkartearen zerbitzura jarriak. Eginkizun sozial garbia da horiek ugaritzea, pertsonari eta izadiari zor zaion errespetuz arituz gero. Baina gizakia gauza guztiak baino gehiago da; bere izateagatik balio, du eta ez daukanarengatik.

Dohaintasuna giza balio bezala aurkitzeak, ikuspegi zabalak irekitzen ditu; baina, probetxukeria interesatu eta egoista baten mugak gainditzen ez dakien errazionaltasun eginzaleak ez du horretarako sentiberatasunik.

- ***Premia historikoa eta askatasuna***

**35.** Gizakiaren duintasunaren kontrakoa da, historian eta historia eraikitzen duten gertaeretan parte hartzeari uko egitea. Gizakia ez da historiaren emaitza bakarrik. Historiaren egile da, bakarkako eta gizarteko bere ekintzaz. Gizartetik sortzen dira atergabe ekintzarako deiak. Bakoitzaren kontzientziak jakin behar du dei horiek aditzen, ulertzen eta bultzatzen.



Era berean, errealitatearen izaera eta berak erabiltzen dituen tresnak eza-  
gutzea, errealitateri buruz epai etiko eta gizaerako bat egitea, eskuratu nahi di-  
ren helburuak lortzeko baliabide eraginkor eta zuzenak erabiltzea: jokaera guzti  
horiek zentzuzko errealismo baten agerpide izan behar dute, hitz hutsekin edota  
amets idealistekin konformatu gabe.

## II.- JOMUGA: BIZI BERRIA KRISTORENGAN

### Non aurkitu?

**36.** Bihotz-berritu egin nahi dugu; izan ere, gauden egoerak eta daramagun bizierak ez ditu asetzen gure irrikarik gizakoienak. “Krisia” bizitzen ari gara –hitz hori bere esanahirik jatorrizkoenean harturik–, eta nork berak egiten duena ezezik Norberaren izatea ere ukitzen du krisi honek.

Bihotz-berritzeak aldaketa eskatzen du. Zertara aldatu, baina? Bihotz-berritzearen behar larria sumatzen duena nahasmendu etiko-moralaren mundu ilunetik ateratzen saiatzen da. Ilunbetatik argitara deitua (1 Pe 2,9) sentitzen da. “Argiaren seme-alaba” izan nahi du; ez “ilunbearen seme-alaba” (Kol 1,12-13; Ef 5,8). Nola edo hala argi bila dabil; baina non aurkitu argia? Jomugarantz doa; baina non da jomuga?

### Kristau erantzuna

**37.** Bakoitzak bizitzaren aurrean eta, bereziki, sinesmen erlijiosoen aurrean zein jarrera duen, galdera horiei emango dien erantzuna desberdina izango da. Fededunek eta fedegabeek egin dezakete elkarrekin bihotz-berritzearen bideko zenbait epealdi. Bidea elkarrekin egiteak badu gutxietsi ezineko balioa, noski. Nola batak hala besteak bizi dezaketen biekiko esperientziarik badela agerian jartzen da horrela, eta horrek bide ematen dio harreman ebanjelizatzaileari. Biek bizitako esperientzia honetatik abiaturik, sinesmenaren esanahia argitsuago ager daiteke.

Dena dela, bidea argitu eta bihotz-berritzearen jomuga zehaztuko duen argia kristauak, azken batean, Jainkoagan aurkituko du, bere Seme Jesukristo- gan agertu zaigun Jainkoagan, alegia. Kristau bihotz-berritzea jarrera eta jokae- ren aldaketa etiko hutsa baino zerbait gehiago dela ikusarazten digu argi horrek.

### A. BIHOTZ-BERRITZEAREN EDUKI ETIKO-MORALA

#### Legea betetzeko bihotz-berritu?

- *Lege-haustea eta errua*

**38.** Aldaketara bultzatuko gintuzkeen lehen ukitua, hautsi dugun legea bete- tzeraz sumatutako deia izan liteke. Lege moralak hausteak, berez, bere burua errudun ikustera eta zigorraren beldur izatera darama lege hori onartzen duena. Bete ez den agindua berriro bete nahia eta errudun izatearen bihozmina nahiz zigor-beldurra kendu nahia eragingarri izan daitezke jokaera-aldaketarako, eta hau ere berea du bihotz-berritzeak.

Berezko aginduak nahiz Jainkoaren Legeko aginduak bete beharra iraka- tsiz hezi izan da gehienetan kontzientzia moralak, eta horrek eragin handia du

gauzak era horretara ikusterakoan. Lege moralak betetzea ziurtatzeko bide eraginkorra delakoan sartu izan da Jainkoarekiko beldurra.

- ***Bihotz-berritzea lege-ikuspegitik begiratzearen hutsuneak***

**38<sup>bis</sup>.** Errealitate horien atzean dagoen seriotasuna gutxietsi gabe, ikusi eta jakin beharra dugu gaurko pentsakerak zailtasun handiak jartzen dizkiola bihotz-berritzea lege-betetze huts bezala ulertzeari. Gainera, gauzak ikusteko era horrek ez du batere ongi aditzera ematen zein den egiazko bihotz-berritzearen edukia edo mamia. “Legea betetzera” bihurtzeaz mintzatzerakoan ezin da gutxi gora beherako hizkera besterik erabili, hots, bihotz-berritzearen osotasuna adieraziko ez lukeen hizkera.

Gauzak zilegi nahiz debekatuak daudelako on nahiz txar direla uste okerra izateko arriskuaren aurrean, gaurko gizon-emakumeek legearen aginduak zergatik diren argitzea eskatu ohi dute. Eta ez dute nolahalako arrazoirik falta. Legea onartu aurrez, zerbait nahi dute: legeak behartu nahiz debekatutako egin-tzak on nahiz txar zergatik diren ulertu.

- ***Obedientziaren proba***

**39.** Hala ere, ezin ahaztu, jarrera eta egoera etiko-moralik argitsuenak eta barne loturarik handiena dutenak egiazkoak eta benetakoak izateko honako hau behar dutela: une zehatz bakoitzean eskatuko digutena betetzeko prestaera garbi eta zehatza. Horrela egiaztatu beharko da, ongia egiteko eta gaizkia baztertzeko aukera benetan egina den ala ez.

## **Egiatzko giza balioak onartzeko bihotz-berritu**

- ***Balio horiek gizartean duten indarraren garrantzia***

**40.** Etikaren ikuspegitik begiraturik, bihotz-berritzea balioak onartzea ere baldela esan ohi da. Bereganatu egin behar lituzke pertsonak beraiei dagokienez bizi, baldin eta bere izateari uko egin nahi ez badio. Kristauok horri, sarritan, Jainkoaren erreinuaren balioak onartzeko bihotz-berritzea esan ohi diogu.

Egiak, zuzentasunak, solidaritzak, gizon-emakume guztien duintasun zapalezinak, dohaintasunak, itxaropenak, bizitzearen pozak eta horrelako balioek gizartearentzat nolako balioa duten ikustea aberastasun handia da, eta kristauok oso sentibera izan behar dugu halako balioak aintzakotzat hartzeko.

- ***Gogo oneko gizon-emakumeengan Espiritua ari da***

**41.** Kristauok badakigu, jakin, Espiritua fedegabeen bihotzetan ere ari dela. Balio etiko-moralak leial eta benetan hartzeak Espiritua halakoengan ere ari dela adierazten du.

Balioek pertsona osoa hartzeko eta denekiko jarrera nagusiak sortzeko indarra dute; horregatik, jarrera horiek egoera berezi guztietarako balio izango

dute. Bizitzaren aurrean pertsonari dagokion eran jartzeko bidea ematen dute. Balio horiek, beraz, bihotz-berri erazteko berezko indarra dute.

**42.** Balio horien garrantziak zerikusi handia du pertsonari eta beraren duintasunari zor zaion errespetuarekin. Ez dira pertsonari kanpotik datozkion ezarpenak, ideia eta burutazio abstraktuak balira bezala. Giza bizitzatik aparte dauden ideia soilak nekez izan daitezke, jokabideak modu eraginkorrean zuzentzeko behar bezain sendo. Errealitatek urruti leudekeen idealismoen orde, balio horiek senideei zor diegun egiazko maitasunaren agerpen direla uste dugu kristauok.

- ***Kristau sinesmena eta giza balioak***

**43.** Kristauok eginkizun nagusizat dugu gizartean egotea, hau da: eguneroko giza bizitzak irakiten duen lekuan egotea, giza bizitza hori balio etikoen eskakizunei egoki erantzunez eramatea bultzatzeko. Eta eginkizun hori betetzerakoan, “prest egon behar dugu beti geure itxaropenaren arrazoibidea emateko” (1 Pe 3,15). Gure ustetan, sinesmenean du, izan ere, oinarririk sendoena balio horietan dugun konfidantza. Ezarpen hutsak gairak, balio horiek irekitzen dituzte Jainkoarekin eta senideekin –aldi guztietako gizon-emakumeekin– bete-betean elkarbizitzeko atea. Hala eta guztiz ere, kristau bihotz-berritzea balio jakin batzuk teorikoki onartu eta praktikoki bizitze soilak baino gehiago da.

### **Jainkoak eskaintzen digun bizi eta maitasun-misterio barruan dauden lege eta balioak**

- ***Jainkoak egiten digun deia***

**44.** Bihotz-berritzen den kristauak badaki legea betetzekoa dela; bihotz-berritzeak, gainera, bere betera eramaten du legea. Ez ditu gutxiesten giza balioak; alderantziz, esanahi osoa ematen die, baita beraien izate eta garrantziaren oinarrizko arrazoia ere. Baina, horretaz gainera, Jainkoagana bihurtu behar dela ere esaten du eta badaki betetasun osora duela jomuga. Horregatik, bihotz-berritzea ezin da bereizi azken errealitate (eskatologia) horretatik, ezta dagoneko geure artean dugun erreinuaren ondasunetatik ere.

**45.** Beraz, Jainkoagana bihurtzera eta, zehatzago esanda, Jainkoagana kristauari dagokion eran bihurtzera egiten dizuegu dei. Guk badakigu Jesukristogan agertzen dela bete-betean gure izatearen esanahia, eta beraren jarraibidean abiatzen direnak egiazko bihotz-berritzearen bidean sartu direla: “Altxa eta banoa nire aitarengana” (Lk 15,18). Jainkoak, Jesukristoren bidez, Berarengana bihurtzeko, eta Berak eskaintzen digun bizi eta maitasun-misterioa onartzeko egiten digun deia entzun dezazuen esaten dizuegu guzti hau.

- ***Dei eragingarri, itxaropentsu, pozemailea***

**46.** Bihotz-berritzeko egiten zaigun deiari emango diogun erantzuna horrela ulertuta bakarrik:

- izan daiteke gogatsua, bizkorra eta eraginkorra, eta ditugun nagikeria, neke eta, behar bada, etsipenetatik ere atera gaitzake;
- gure bizitzaren alderdi guztiak hartuko ditu, gure bizitza zatituaren atalkatze eta sailkatzeak garaitzen lagunduz;
- Jainkoarekin eta senideekin izatekoa dugun elkar aurkitzearen itxaropenak bizkortua izango da; nahiz eta horretarako geure buruari astinduak eman eta gogor egin beharra izan;
- Jainkoarekin eta senideekin bete-betean bizitzera deituak diren, eta Jainkoak gu bezala maite dituen haiekin bat eginik bizi ahal izatearen poza eta alaitasuna emango digu. Jesusek etengabe esan ohi zuen, bekariaren bihotz-berriak poza ematen diola Jainkoari berari, pertsona eraberritu eta bere izatera itzuli delako (ikus Lk 15,6-7.9.10.32).

## **Agerian jarri behar den deia**

**47.** “Jainkoagana bihurtu” esaera ez da gaur, behar bada izan behar lukeen bezain esankorra. Erabiliaren erabiliz, moteldu egin ohi da maiz hitz ederren esanahia. Edota gerta daiteke, behar bezain argi eta zehatz ez ditugun ideia eta pentsakerek eragotzi egiten digutela, zail diren bihotz-berritzearen alderdi batzuk garbi ikusten. Inguruko pentsakerak honetan ere ilun dezake kristau misterioari darion egiazko argiaren distira. Horregatik behar diogu denok elkarri lagundu, “Jainkoarengana bihurtzeak” duen esanahia aurkitzen. Hala eta guztiz ere, ez da aski izango kristau bihotz-berritzea zer den argi adieraztea. Gure gizarteak Jainkoarekiko duen ezagupen txikia eragozpen handia da, “Jainkoarengana bihurtze” hori zer den biziki ulertu ahal izateko.

## **B. BIHOTZ-BERRITZEAREN ALDERDI TEOLOGIKOAK**

### **Jainkoaren maitasuna agertzen duen deia**

**48.** Horixe da harritzen gaituen lehenengo ustekabea. Gure ikuspegia erabat aldarazten digu horrek. Uste genuen, geure “eroraldiaz” ohartzean edota “bekatuak” dakarkigun nahasmenduaren aurrean, eta geure giza izatea galtzeak dakarkigun nahigabe eta etsipenaren aurrean, eta geure erruaz konturatzean etortzen zaigun beldurraren aurrean, geuk astintzen genuela geure burua, eta bihotz-berritzeko asmoa hartzen.

Baina errealitatea oso bestelakoa da eta, egiazki, askoz pozgarriagoa. Norbera baino ere lehenago, “Bestea” axolatzen da eta kezkatzen gure egoeraz. Gure baitan sortutako gogoia baino lehenago, Jainkoarengandik datorren deia dago. Gizadi osoaz eta pertsona bakoitzaz duen axola, gure alde egiteko duen gogo bezala agertzen da. Gu baino indartsuago denaren maitasunak sortarazten duen gogoia da. Ezin dugu ahaztu, eroriak gaudenean, badugula “urrutitik ikusten gaituen eta bidera ateratzen zaigun” Aita (Lk 15,20); galduak gaudenean, badugula gure bila datorren Artzaina (Lk 15,4-7).

**49.** Geure ahultasunak dakarkigun etsipenaren aurrean, maite gaituen Haren erantzuna sortzen da; guregana bihozkor hurbildu eta dei hori. Bihotz-berri-

tzeko deia maitasunaren deia da. Gu zigortuz ez, baizik eta hondatua dagoena birsortuz erantzun ohi duen Jainkoaren maitasuna. Ziur aski, gaurko gizon-emakumeek, aitortu ez arren, behar larri hau sumatzen dute: beraiez axolatzen den norbait badela esatearen beharra, eta norbait hori axolatzen dela ez gizon-emakumeen arazoak konpontzeko, “arazo” nagusiari –irtenbiderik ez duela dirudien bizi-nahiaren arazoari– irtenbidea eskaintzeko. Garai honetan ere jakin beharra dugu, “Gizonaren Semea, galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri” dela (Lk 19,10).

## **Bizia eskaintzen diguna**

**50.** Bihotz-berritzea aipatzean, barkamena bururatu ohi zaigu. Hori horrela izanik, Jainkoak bihotz-berritzeko egiten digun deiari, Berak eskaintzen digun barkamenaren aldetik eta, guk Berari eginiko iraina dela-eta, zor diogun ordainaren aldetik begiratu ohi diogu. Eta hala da; baina ez da hori bakarrik. Bihotz-berritzeko deia egitean, “grazia” ere –eta batez ere– eskaintzen zaigu, hau da, bizia ere eskaintzen zaigu. Jainkoarengana bihurtzea gehiago bizitzeko bidean sartzea da, pertsona beteago izan eta guraririk bikainenak asetzeko bidean sartzea. Horrela ikus dezakegu giza biziak jarrai dezakeela izaten; Jainkoa bait dabil tartean, bizi ahal izate hori benetakoa izan dadin interesatua eta dohaintzat eskainiz.

**51.** Sinestedunak, bihotz-berritzean, badaki giza bizi osoagoa hartzen duela dohaintzat, hots, Jainkoaren egintzaren fruitu den dohaina. Izan ere, Berak oneraten du hondatua zegoena, eta birbizten hila zegoena. Bekatu egitean, Jainkoak eskaintzen digun bizia baztertzen dugu beti. Hala dio Jeremias profetak pasarte eder honetan: “Ni, ur bizien iturri naizen hau, utzi eta urik gorde ezin duten ur-aska zartatuak egin dituzue zeuentzat” (Jr 2,13). Bihotz-berritzea, ordea, bizira itzultzea da. Jesukristogan bere osotasun eta betetasuna hartu duen bizia bera du Jesukristogan uretik eta Espiritutik birjaio denak ere.

Horregatik, lehenbiziko bihotz-berritzea eta gerora, ezarian-ezarian, egiten dena esperientzia pozgarri eta alaia dira, bizitzeak ematen duen bozkariotik sortua. Bihotz-berritzeak zenbait gauzari uko egin beharra dakar; uko egite hori, ordea, ez da giza izatearen murrizketatzat hartu behar. Biziaren jarioari eragozpenak kentzeko bide da uko egite hori. Horrela, bizi ugari duen Hark emanik, onartu nahi dutenek benetan hartzen dute bizia. Horretara egin ohi diote dei profetek etengabe, Jainkoarengandik urrutiratu den herriari: “Ai, itzuliko bazintzait, Israel! Niregana itzuliko bazina! Zikinkeria higuigarria baztertu eta Niregandik aldegingo ez bazenu!” (Jr 4,1).

## **Sinesmenez onartu beharrekoa**

**52.** Jainkoaren deiak erantzuna eskatzen digu; eskaintzen diguna onartu beharra dugu. “Sinesmenera ekartzeak” (ikus Erm 1,5) biak hartzen ditugu. Egin beharko dugu ahalegina bihotz-berritzearen helmugara iristeko, bai; baina bizi berria gureganatu ahal izatea, sinesmenez konfidantza Jainkoarengan ipintzearen ondorio izango da.

Bihotz-berritzeak, norberaren lan aszetiko baino gehiago, gure uste osoa merezi duen Jainkoarekin nork berak topo egitea behar du izan. Jainkoaz mintzatu zaizkigun guztiek –batez ere, azken Profeta, Jainkoaren Semeak berak– halakoxe Jainkoa ikusarazi digute. Beraren hitza entzun, hitz horretaz fidatu, hitz hori onartu eta bizi nahi duelako bihurtzen da kristaua Jainkoarengana.

**53.** Aitaren hitza hots egiten digun Profeta dugu Jesus; baina, aldi berean, egiazko giza bizitzaren agerpen historikoa ere bai, Jainkoaren Biziaz asean egon delako, eta horrela bizi ahal izan du bete-betean giza bizia. Zer da egiazko kristau bihotz-berritzea? Jesus sinesmenez onartzea; bekatuak itxuragabetuak ez, baizik eta Espirituak santu eginak diren gizon-emakumeen “bidea, egia eta bizia” (Jn 14,6) Jesus dela ikustea; gure izate osoa sustraitik hartuko lukeen konfidantza Berarengan ipintzea. Halako bihotz-berritzeak, Jesusek guregatik ibili zituen bideetatik eramango gintuzke, Berak guretzat lortu duen helmugaraino.

### **Bataioaz baietsia**

**54.** Bihotz-berritzeak, sinesteak eta bataiatzeak barru-barruko lotura dute elkarren artean. Penitentzia baino lehenago, Bataioa da kristau bihotz-berritzearen sakramentu nagusia. Bataioan “hiltzen” gara, bekatuak berezkoa duen ezetzarentzat, eta “bizten”, Jesukristogan dugun bizi berriak berea duen baietzarentzat. Beste bideei uko egin eta Jesusen jarraitzaileen elkartean sartzen gara bataiatzean (ikus Erm 6,1-11; Ap Eg 2,38-41).

Bihotz-berritzeak eta Bataioak elkarrekin duten lotura sakon hori garbi agertzen da helduen Bataioan: sinesmenez Jauna aurkitu eta bihotz-berritzeko deia entzun duenak, bihotz-berritzearen egiazko eta agiriko pausoa bataiatuz ematen du.

Bataioa, ordea, bihotz-berritzearen helmuga ezezik, etengabe bihotz-berritzen jarraitzeko indar-iturri ere bada gutariko bakoitzarengan. Bihotz-berritzearen bidean ibiltzeko gai egiten gaitu, eta beti aurrera egiteko eskatzen. Penitentiako sakramentuaren ospakuntza Bataioa berritzeko une berezia dugu, Bataioak bihotz-berritzeko eman zigun indarra hartu eta bultzatuz.

### **Maitasuna bete-betean bizitzeko**

**55.** Bihotz-berritzean, egiazko bizia bizitzeko deia egiten zaigu, eta bizi hori maitasunean oinarritzen da. “Eman zaigun Espiritu Santuaren bitartez, Jainkoak gure bihotzetara isuri duen maitasuna” da (Erm 5, 5); Berak sortarazten du guregan “bihotz berria” (Jn 31,33; Ez 36,26-27). Maitasun horretan agertzen zaigu, hain zuen, Jainkoaren bizia. Eta Jainkoaren bizia bereganatu nahi dutenen bizia ere maitasuna da. Horretara deituak dira, beren barne-muinetan, gizon-emakumeak. Bere ustea Jainkoarengan ipini duenak onartuko ditu maitasunaren eskakizunik sakonenak ere. Bizitzan irauteko, gizon-emakumeek ez dute maitasuna baztertu beharrik. Hori egiteak ekarriko lieke, hain zuzen, etsipenik handiena. Bihotz-berritzen denak badaki giza historian ez dagoela ezer maitatzen jarraitzea eragotziko dionik, ezta gurutzea bera ere, onartua eta maitatua baldin bada, nahiz eta maitatzen jarraitzeko bidea gurutzea izan.

Maitasunak ez ditu Jainkoa eta gizakia elkarren aurka jartzen, bata ala bestearen artean aukera egin behar delakoan. Jainkoa maitatzeak ez du esan nahi gizon-emakumeengandik urrutiratu behar denik, haiek baino hobea den zerbait aurkitu dela eta. Gizakia maitatzeak ere ez du Jainkoa ahaztu erazten, pertsona izateko Jainkoaren beharrik ez delakoan. Kristau maitasuna bakarra da, dena hartzen duena, komunikatza eta elkartzera denei egin zaien deia kontuan izanik uler daitekeena. Komunikatze eta elkartzeko hori, berriz, Kristori esker egin daiteke. Horixe da, izan ere, Jesusen azken nahia: “Guztiak bat izan daitezela, Zu, Aita, Niregan zauden eta Ni Zuregan nagoen bezala” (Jn 17,21); “Zuk Niri didazun maitasuna haiengan ere izan dadila, eta Ni ere haiengan izan dadila” (Jn 17,26).

**56.** Egia, zuzentasuna, askatasuna eta aipa dezakegun beste zenbait giza balio benetakoak, agindu abstraktu izan ordez, goi-errealitate traszendenten giza adierazpen bihurtzen dira. Balio horiek agertzen digute, maitatzearen bozkarioa eta alaitasuna gozatzeko den bizitzaren misterioa.

Horregatik da damua, hain zuzen, egiazko bihotz-berritzearen alderdi nagusienetako bat. Bidez kanpora ibili izana eta, horregatik, bizia galdu izana ikusten duenaren esperientzia da damua. Eta horixe sumatzen du Jainkoarengana bihurtzen denak: “Erruki zakizkit, Jainko, duzun maitasun handiaz, suntsi ezazu nire makurra zeure amaigabeko errukiaz... Garbi nazazu zeharo neure hobenetik, ikuz nazazu neure gaiztakeriatik... Ene Jainko, bihotz garbia sor ezazu niregan... Zeure salbamenaren poza bihuriezadazu” (Sal 50,3-4.12.14). Bereizirik eta urrutiraturik egon ondoren, gizon-emakume guztiak –inor baztertu gabe eta inor zapaldu gabe– maitatu ahal izatea emango digun Harengana itzultzea da bihotz-berritzea. Horrela, erreinua eta beraren benetako balioak gizon-emakumeen artean ezarri ahal izango genituzke.

## **Jesusi jarraituz**

**57.** Geuregandik kanpora ere nabaritzeko moduko aldaketak eska diezazkiguke bihotz-berritzeak. Bihotz-berritzea, baina, ez da aldaketa horietan bukatzen. Erabateko aldaketa da, berez; bihotza iraultzea da, bide berezia –Jesusi jarraitzeko bidea– aukeratzeak gudan sortzen duen aldaketa.

Aukera hori egiteak bizitza osoa hartzen du, nahiz eta sarritan ilun ikusi egoera –hori ere ezin bait da ahaztu– eta ilun ikusi Jesusek markatu zigun bidean ibiltzeko une bakoitzean zer egin ere. Jesusi jarraitzea da, izan ere, gure bizitzaren ardatz nagusia, nahiz eta fede ahula dugula ohartu eta gure gogoa nagitu, hartutako bidea uztera bultzatzen gaituzten deiak –”tentaldiak” eta “eskandaluak”, alegia– izaten ditugulako.

**58.** Jesusi jarraitzeak ez du esan nahi ustekaberik izango ez dugunik edota inoiz bururatu ez zaiguna gertatuko ez denik. Giza bizitzan jakina da halakoak gertatuko direla; baina, bihotz-berriturik ere, giza bizitza horixe behar dugu bizi, ameskeriarik edota irudipen arinik gabe. Jesusi jarraitzeak, bestalde, egin dugun eta baztertu nahi ez dugun aukeraren ondorioak onartzeko prest egotea es-



katzen digu, atzean uzten dugunari begira egon gabe (ikus Lk 9,62), nahiz eta ez genukeen uste izango aukera horrek hain urruti eramango gintuenik, geure buruarekin eta inguruko munduarekin dugun gatazkan.

**59.** Azkenik, Jesusi jarraitzeak ikusarazten digu, bidean aurrera egitea dela bihotz-berritzea, eta Jesukristok guregan hasi duen lana buka dezan uztea. Izan ere, sinestedunaren bihotz-berritzea ez da inoiz bukatzen bizitza honetan. Bizitza bera bezain luzea da, izate “burutu” eta, horrela, “osotua” azkenean iristeari begira dagoelarik. Sinestedunak ez du inoiz galtzen, Jauna berriro etorri arte bizitzeko ilusiorik. Bitartean, Jaunaren ondoren ibiltzen saiatzen da, senideekiko maitasunez bere burua eskainiz.

Hitz batean, Jesusi jarraitzeak “askatasuna sendotzen du, aukera egiteko norabidea erakusten eta egintzetan eusten; susmoen kezkarik ez izaten laguntzen du, leialtasuna sortzen eta elkarrekin behar duen ‘gu’ hori eragiten” (*Espiritalitatearen Hiztegi Berria*, 1.261 or.).

### **Erreinua eraikitzeko**

**60.** Erreinua Jesus bera da, baina “indar egiten dutenek” bakarrik eskuratzen dute (ikus Mt 11,12). Erreinua Jesus bera da, baina gizarteko harremanetan ere agerian jarri behar da, eta nabaritu. Erreinua eraiki behar dugu; hobeki esan, erreinua egia eta eraginkorra bihur dadin, tokia egin behar diogu. Horretarako, norberaren eta denen ahalegina nahitaezkoa da. Jainkoaren “eskaintzari” gizon-emakumeon “egintza” dagokio. Horrela, batak eta besteek, bereizi ezinako elkarlanean, egintza zoragarria daramate aurrera: bekatuak hondatua zuena eta oraindik ere gure baitan eta gure baitatik kanpora desegiten ari dena, berriro eraikitzeko egintza, alegia.

Bihotz-berritzea egin beharreko lana da; bete betebeharrak dituen lana; bakoitzak nahitaez egin behar duen ahalegina eragiteko psikologi estrategia ere baduen lana. Izan ere, Jainkoak bihotz-berritzen gaituela egia den bezala, geu bihotz-berritzen garela ere egia da. Horrela uler daiteke profetaren otoitza: “Bihotz-berri nazazu eta bihotz-berrituko naiz” (Jr 31,18).

**61.** Bide honetan, gainean izango dugu gurutzea. Jesusek berak esan zigun: “Nirekin etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza egunero bere gurutzea eta jarrai biezat” (Lk 9,23). Giza izatearen txikitasunak eta ahuldadeak dakarren gurutzea da. Gure haragian, gure sentimenduetan eta gure espirituan ere sartzen den gurutzea, espiritu horri zail gertatzen bait zaio konfiantza Jainkoarengan eta Haren Semearengan ipintzea. Jesusenak ez diren irizpideez baliatzen den munduak eta irizpide horiek salatzen dituztenak baztertzen, gutxiesten edota pertsegitzen dituen munduak ezartzen digun gurutzea. Ezin zaigu ahaztu, hala ere, maitatzea aukeratu dugula bizibidetzat, eta maite ez gaituztenak, pertsegitzen gaituztenak ere maitatzera bultzatzen gaituela maitasun horrek.

## **C. JESUSI JARRAITZEAREN ESPIRITUA**

### **Bihotz-berritzea eta zoriontasunak**

**62.** Bihotz-berritzeak jokaeren aldaketa eskatzen du, baina, esana dizuegunez, bihotz-berritzea bera da jatorrizko aldaketa, gerora etorri behar duten aldaketa guztien iturri; bihotzaren aldaketa bait da. Jesukristogan Jainkoarengana bihurtzen denak bere egin nahi izaten du Jesusen espiritua. Espiritu horrek eragingo ditu pertsonen arteko harremanak, Jainkoaren erreinua egia bihurtzeko era-koak izan daitezten. Bere ustea Jesusengan ipintzen duenak bizitzaren aurrean jarrera hartzeko espiritu berria bere egiten du. Jesusen hitz eta bizitzan eta, zehazki, “mendiko hitzaldian”, hau da, “Zoriontasunetan”, aurki dezakegu, garbi adierazia, espiritu berri hori (ikus Mt 5,3-10; Lk 6,20-23).

### **Zoriontasunak kristau elkarte osoarentzat dira**

**63.** Luzaro uste izan da, Zoriontasunak “bizitza erlijiosoan” sagaratuak dauden pertsonentzat zirela. "Perfekziora" deituak ziren pertsona berezi batzuentzat zirela zirudien. Zorionean, aldatu da pentsakera hau Elizan. Sinesmena eta baitaiatua izatea, kristau bizitza era berezi batean nahiz bestean zehaztu aurreko errealitateak dira. Horregatik, Zoriontasunak kristau guztiongan daude erro-tuak, sinestedun izateari eta Bataioko sagarapenari dagokien zerbaitek direlarik.

Poza ematen du, hala aberastasun espirituala –Zoriontasunen espiritua, alegia– kristau elkarte osoarentzat eta elkartekide bakoitzarentzat berreskuratu izanak. Orain arte esan dugun guztiaren hariari jarraituz, beharrezkoa ikusten dugu Zoriontasunak kristau bihotz-berritzearen muin-muinean sartzea.

### **Jesusen berri onaren adierazpen dira Zoriontasunak**

**64.** Egia, zuzentasuna eta halako balioak aipatzeak baino oihartzun sarkorra-goa, gizakoiagoa eta, aldi berean, kristauagoa duela dirudi, Zoriontasunak irakurri nahiz entzuteak. Hala ere, darabilten hizkera harrigarriagatik edo, sinesgaitz gertatzen zaizkigu eta, hasiera batean, arrazoizko pentsakeraren kontra daudela dirudi. Amets huts ote dira? Haustura? Direna direla, ezin diegu inolaz ihes egin, horietan agertzen bait zaigu Jesusen espirituaren azalpenik jatorrena. Ebanjelioak dakarren berri onaren adierazpen dira Zoriontasunak eta berri on hori Jesukristogana egiaz bihurtu nahi duten guztiei ematekoa da. Jesus onartzeak Zoriontasunak onartzea eskatzen du. Beraiek esaten digute zein den bihotz-berritzearen espiritua, bihotz-berritu ahal izateko bere plateamenduak “Al-datu” dituenaren espiritua. Bihotz-berritzeak berekin dakarren “iraulketak”, bihotz-berritzean aurkitu, onartu eta geureganatu ditugun balioen “iraulketa” eragiten du, berez.

### **Zoriontasunen alderdi eskatologikoa eta gaurkotasun historikoa**

**65.** Hala da. Zoriontasunak, kristau bihotz-berritzea bera bezala, ezin dira ulertu ikuspegi eskatologikotik begiratu ezik. Zoriontasunak bete-betean betiko

bizitzan, historia bukatutakoan, bizi ahal izango ditugula esan nahi du honek. Kristau bizitza, ordea, hemen bizi behar da dagoeneko, berari dagozkion pentsakera eta jokaerak, irizpide eta jarrerak kontuan izanik. Horregatik, eguneroko bizitza zehatzean bizi behar ditugu Zoriontasunak, guretzat eta gure garairako ere bai bait dira. Etorkizunean izango dena aipatzen badute ere, ez da ulertu behar geroan izango den kontsolamendua edota saria besterik adierazi nahi dutenik. Etorkizunerako esaten denak, aldaketa sustraitik orain egitea eskatzen du.

“Ordua bete da, hurbil da Jaungoikoaren erreinua. Bihotz-berri zaitezte (hau da, aldatu pentsakera) eta sinets berri ona” (Mk 1,15). Bihotz-berritzeak pentsakeraren aldaketa behar badu, behar hori nabarmenago da Zoriontasun harrigarri horiek onartu nahi ditugunean. Pentsatzeko erak eta bakoitzaren bihotzean finkatutako irizpideak aldatzea, eta gizarteak ezarritako irizpideak baztertzea –Jesusen pentsakeraren kontrakoak bait dira– dute eskatzen Zoriontasunek.

### **Errealitate historikoari begira ulertuak**

**66.** Jesusek bihotz-berritzera egiten digun deia entzun eta onartu ondoren, mundu honetan nagusi den pentsakerari, argi eta beldurrik gabe, aurre egitean uler dezakegu, Zoriontasunak direla gizon-emakumeen egiazko askapenaren bidea. Gizakiaren alde, gizakia babesten duten eskubide eta balioen alde, esan ohi diren gauza ederrak gezur arriskutsu eta itxurakeria huts bihurtzen dira, baldin eta Zoriontasunen espirituak egiaztatzen eta benetako egiten ez badituzte. Horrela aldatuko bait litzateke giza interesen arrazionalkeria hotzaren mekanismoa. Hau ikusten duenak ikusiko du, beraz, Zoriontasunak direla gizon-emakumeen askapenaren egiazko bidea.

Zoriontasunen esanahia ulertzeko eta beraiek dena aldatzeko duten indarra ikusteko bide gertatzen da, horrela, historia bera. Horretarako, ordea, bere jokaeren aldaezinezko eragiletzat beti maitasuna hartzeko prest dagoenaren bihotz garbiaz irakurri behar historia hori.

### **Zoriontasunen irakurketa gaurko munduari begira**

#### **• *Diruzalekeria eta boterezalekeriaren aurrean (Mt 5,3)***

**67.** Diruzalekeriak eta boterezalekeriak gizakia menpean nola hartzen duen salatzen du Jesusek. Giza izatearen betea eta zoriontasuna halakoen bidez lortuko dela uste izatea gezurra dela adierazten du. Eta, batez ere, behartsuak eta txikiak zapaltzeko tresna bihurtzen diren diruzalekeria eta boterezalekeria salatzeko ditu (ikus *Lk 16, 19-31*). Zapalketa hori ezin da bat etorri maitasunarekin.

#### **• *Boterea eta dena lortu nahi izatearen tentaldiaren aurrean (Mt 5,4)***

**68.** Gaurko gizakia harro dago lortu duenarengatik. Zientziak bere ahalbidea uste ez zen sailetaraino zabaldu du. Badirudi ez dagoela zientziak lortu ezin du-

enik. Espazioaren konkistak eta injinerutza genetikoaren lorpenek argi erakusten dute zer iritsi dezakeen teknikak. Gizakia bera ez da gauza, hala ere, sortu duen indar hori kontrolatzeko. Gizakiaren beraren kontra jartzen bait zaio, zapalketarako tresna bihurtzen duen neurrian. Izadia ezezik, pertsonak ere gauza bihurtzen dira, edozein erataria erabil daitezkeen gauza. Botereak eta dena lortu nahiak agintzen dute nola jokatu, pertsonari dagokion balioztapena kontuan hartu gabe. Horietan ipini ohi da arrakastaren giltza. Jesusek, ordea, ez ditu gauzak horrela ikusten. Otzanak, bihotz gozokoak, egonarriz itxaroten dakitenak, pertsonengan konfidantza dutenak, elkar ulertze eta askatasunez adieraztearen bidea hartzen dutenak dira –ezarpena eta agintekeria erabili ohi dutenak ez bezala– lurraren jabe egingo, senideen bihotza maitasunaren bidez bereganatu dutelako.

- ***Aseen handiustearen aurrean (Mt 5,5)***

**69.** Badaki Jesusek ase dagoenak ez duela inorengandik ezer espero beharrik. Bere gurariak ase ditzakeela, inolako hutsunerik ez duela, bere buruaz aski duela, konfidantza oraingo nahiz geroko ahalbideetan bakarrik jar dezakeela uste duen gizadiak ez du inorengana jo beharrik. Ezta Jainkoarengana ere. Hori, ordea, gezur hutsa da. Hala dio Jesusek. Asko dira negarrez ari direnak. Eta egia gutxietsi nahi ez duen edonork ikus dezake, sufrimendu horrek egiazko motiboak dituela, ez artifizialki sortuak. Pertsonak bere baitan darama bere burua hondatzeko grina. Hori ikusten dakiena eta salbamena eskain diezaiokeenari bihotza irekitzen diona da zorioneko.

- ***Solidaritarikgabeko berekoiaren aurrean (Mt 5,6)***

**70.** Dena nork bere komenientziaren ikuspegitik ikusteko tentaldia handia da. Horrek, ordea, bekatzuz eta zuzengabekeria zikintzen du bizitza, besteen axolarik ez izate hutsagatik. Solidaritarik ezak zuzengabekeria sortarazten du pertsonen arteko harremanetan. Zuzengabekeria berorretan erortzen dira, beren baitan itxirik, ezikusi egiten dutenak eta beren inguruan gertatzen denaz axolatu nahi ez dutenak. Berentzat eta besteentzat geroz eta zuzentasun handiagoa nahi dutenak, erreinua geroz eta egiazkoagoa egiteaz kezkatzen direnak –legea bete-tze hutsagatik beren buruak “zuzentzat” hartu gabe–, inoiz ere erabat lortzen ez diren helburuen ondoren saiatu eta, horrela, Jainkoaren zuzentasunari geroz eta toki handiagoa egiten diotenak... dira zorioneko.

- ***Ondoan dugun behartsuaren aurrean (Mt 5,7)***

**71.** Erabili ohi ditugun hitz ederren atzean, egin ohi ditugun egitasmo bikainen atzean, gaur ere sufritzen ari den pertsonarik badela oroitarazten digu Jesusek. Harrokeriaz “ongi izatea, ongi bizitzea” esan ohi genion egoera zalantzan dagoela ikusi beharrik ez dago, sufritzen ari den pertsonarik badela ohartzeko. Eta era askotara, gainera. Pertsona bakoitzaren sufrimendua, hurbil den senideari egindako oihua da. Bada besteen atsekabeaz axolatzen ez denik, “gizar-teak” pertsona guztien arazo guztiei irtenbidea bilatu behar diela uste duelako. Jesusek ez du hartzen halako jarrerarik. Ekonomi eta sozial-politika nagusiez baliatu beharko da, noski, beti izango ditugun behartsuei laguntzeko. Baina, aldi berean, beharrezkoa da senide “errukitsuaren” maitasun samurra ere.

- ***Bekatuarekin bat datorren munduan, zorionekoak bihotzez garbi direnak (Mt 5,8)***

72. Jesusek ongi zekien, bihotzetik zetozeela asmo txarrak, gizon-hiltzeak, ezkontz-nahasteak, lizunkeriak, lapurretak, gezurrezko testigantzak, biraoak (Mt 15,19). Eta, horretxegatik, gizon-emakumeok urrezko itxurakeriaz estali beharra izaten dugu geure burua, garena gorde eta ez garena azaldu nahi izateraino. Horrela geure ahuleria babesten dugu, baita geure gaiztakeria ere. Babestu nahi horrek erraz engaina gaitzake, ordea, Jainkoaren begirada eta epai zuzenetik eta geure kontzientziaren garrasitik gordeak gaudela pentsaraziz. Zuzengabekeriak Jainkoa ikustea eragozten digu, eta Jainkoarekiko sena galtzeak zuzenbidea ikusteko itsutzen. Jainkoari begiratu nahi ez diogulako gaude lohituak... Eta, orduan, bekatu kontzientzia izatea ahultasun psikologikoaren ondorio dela, edota joandako aldien hondakin dela, esan ohi dugu. Gauza bat da, ordea, egonezinez eta gogorkeriaz bete eta lotzen gaituen errudun sentimendua, eta bestea indartzen, baketzen eta adiskidetzera bultzatzean gaituen bekatu kontzientzia osasungarria. Ez ditugu biak nahasi behar. Jesusek esaten digu zorioneko gara, baldin eta geure buruari Jainkoaren aurrean begiratzen badakigu eta bihotzez garbi izan nahi badugu.

- ***Gogorkeria eta gerraren dialektikaren aurrean (Mt 5,9)***

73. “Zorionekoak bakegileak”, dio Jesusek. Horrela, bakearen bila ibil gaitzkeela eta gerra beharrezkoa ez dela oroitarazten digu. Bakea lortu ahal bada, gizon-emakumeon gain dago horretarako bideak ipintzen saiatzea. Bakerik eza, zoritxarra ezezik, giza bihotzetik sortzen den eta egon behar ez lukeen gaitza ere bada. Batzuek, gerrarik nahi ez izatearen aitzakiaz, irauñ erazi egiten dute injustizia; beste batzuk, berriz, gerra sortzen dute justizia egin nahiaren aitzakiaz. Pentsamendu eta epai etikoen jolas arriskutsu horiek utzi eta gauzak beste era batera ikustera egiten digu dei Jesusek. Bestela, ezin izango dugu maitasuna bizi, ezta Jainkoaren erreinua geure artean izan ere. Jainkoaren seme-alaba direnak bakearen alde saiatzen dira eta, ahal duten neurrian, egin ere egiten dute.

- ***Zorionekoak zuek Niregatik erasoka erabil zaitzatenean (Mt 5,11)***

74. Biraoka eta erasoka erabiliko gaituztela, gure kontra gezurretan asmaahalak esango dituztela dio Jesusek. Egiaren eta zuzentasunaren alde borrokatzera atera gara mundura. Munduak, ordea, ezin du jasan, mundua egiaz maite duelako egia esaten diona. Erasoa egiten die profetei; bekatuz iritsi duen egoera zalantzan jartzen dioten aldaketak baztertu egiten ditu; ez ditu jasaten kontzientzia lasaien itxurazko baretasuna astintzen dutenak. Hau gertatuko balitzaigu, egon gintezke pozik eta alai, zeren eta zuzentasun eta maitasunaren gurutzera daraman bidean izango bait ginateke eta, gainera, bizi berriari atea irekitzen dion bidean. “Handia izango da zuen saria zeruetan” (Mt 5,12).

## **Egian bizi**

75. Historian sartuak –baita gure historian ere– dabiltzan gizon-emakumeen egia agertzen diguten irakaspen miresgarria ditugu Jesusen Zoriontasunak. Aza-

letik ulertu izan ditugu, seguru aski, eta, horregatik, gaurko garairako ez direla uste izan dugu. Sinestedunak, baina, ez du halakorik uste izan behar. Alderantziz, gaurkotasuna ikusten saiatu behar du. Zoriontasunetan dugu benetako bihotz-berritze pozgarriaren espiritua. Egiaren hitza dira, eta “egiarena denak entzuten du Haren hitza” (Jn 18,37).

### **III.- BIDEA: NORBERAK IBILI BEHARRA**

#### **Pausoz-pauso eta etengabe ibili beharreko bide baten urratsak**

**76.** Bihotz-berritzea ez da behin ere bat-batekoa izan ohi. Ezta Tartsoko Sauloren ere. Zalditik erortze hura ez zen, besterik gabe, bihotz-berritzea izan. Bihotz-berritzearen hasiera bakarrik izan zen (ikus Ap Eg 9,1-18). Sinesmenik eza, erlijiozko epeltasuna, moral alorreko desordena, bekatua... adierazten duen egoera batetik bihotz-berritzea esan ohi diogun beste egoera batera aldatzeak, bide bat ibili beharrean jartzen gaitu derrigorrez. Jesusen jarraipeneko bidea, hain zuzen, eta gure bizitza osoan zehar irauten du. Beraz, bihotz-berritzea etengabeko ibilbide bat da: Aitaren aurrera betiko agertu bitartean bukatzen ez den ibilbidea.

Gauzak beren esanahi osoan hartuta, bihotz-berritzearen egiazko bidea Jesus da, ez beste zerbait. Jesusek esana digu, Berbera dela Aitarengana eramaten gaituen bidea (Jn 14,6). Bihotz-berritu eta Aitarengana itzultzeko bidea Jesus da. Horregatik, bihotz-berritzeko bide bat jarraitzera zuei dei egitean, ibilbide bat egin beharra dagoela esan nahi dugu, pertsonaren psikologiari dago-kion erako ibilbidea; beharrezkoa bait da hori kontutan hartzea. Horrek esan nahi du, Jesus bera den bidean jarriko gaituzten pauso batzuk eman behar ditugula, Jesusen bitartez Aitarengana irits gaitez.

#### **Zenbait argibide**

**77.** Gure asmoa ez da, denentzat berdina eta nahitaezkoa izango den bide bat finkatzea. Psikologia, izaera eta egoera desberdinetako pertsonak garelako ikusirik, hori jasan ezina izango litzateke. Gainera, alferrik da Espirituaren jarduna gure muga barruan jarri nahia; Espirituak ustekabean egiten du lan, nahi duen lekuan, nahi duen eran eta Berak nahi duenean. Gure asmo bakarra argibide batzuk eskaintzea da, pentsatuz lagungarri izan daitezkeela askorentzat, beroiei esker beren ibilbidea argitua ikusten badute, eta ibilbide hori hobeto ulertzen eta sakonago bizitzen laguntzen badiete.

#### **A. LOIOLAKO IÑIGOREN ESPERIENTZIAK**

##### **Elizan dagoen Espirituaren egitea**

**78.** Asmo honekin, labur-labur bada ere, Loiolako Iñigok bere bihotz-berritze ibilbidean izandako unerik nagusienak adierazi nahi dizkizuegu. Hori ez da asko bitxi bat edota egokieraz baliatu nahia. Santuen esperientziak, Elizan dagoen Espirituak bere jardunean erabili ohi dituen bideen adierazpen dira; gure giza neurrikoak diren bideen adierazpena. Santuak ere, gu bezalaxe, hezur-mamizko gizon-emakumeak izan dira.

Gure alderdi argalak santuen bizitzetan ere ikusten ditugu. Baina baita gure ahalbideak ere: bai gure giza izaeratik sortzen diren ahalbideak, bai Espirituaren egintzatik sortzen direnak.

Santuetan, santu eginak izan direnen giza alderdia ikusten da, baina baita santu egiten dituen Espirituaren jakinduria eta grazia ere.

## **Espiritu honek bere lana egin zuen Loiolako Iñigorengan**

**79.** Gugandik bereziki hurbil sumatzen dugu Loiolako Iñigo bihotz-berritze ibilbidean, argi-emaile eta eragile gisa. Beraren jaiotzako V. Mendeurrena ospatzen dugu. Euskal herriko seme izan zen, eta Iruñeko Elizako fededun, Bataioaz. Bilbo eta Donostiako Elizen zaindari dugu. Beronen bizitzako oroitzapen liburuan jaso dagoen bere bihotz-berritzearen balio pedagogikoagatik, Jainkoaganako bidean berak hainbat laguni lagundu izanaren esperientziagatik, eta Gogojardunen liburuko altxor agortezinagatik, Loiolako Iñigo eredu eta maisu dugu, eta mendeetan zehar ez du bere indarririk galtzen.

Gaur Iñigo gogora ekartzean, eskerrak eman nahi dizkiogu ontasun guztien iturri den Jainko Aitari, hainbat arrazoiz geurea jotzen dugun gizon aparta honen bidez, dohain bikaina egin ziolako garai hartako Elizari eta baita gure garaiotako Elizari ere.

## **Lur jota egotetik ondorio handiak dituen erabaki sendora**

- ***Argaltasunaren esperientzia***

**80.** Loiolako Iñigo esperientzia larri baten ondorioz hasi zen bihotz-berritze bidea egiten: Iruñean zauriturik erortzearen ondorioz. Zauriturik, lur jota geratu zen, bai gorputzez bai moral alorrean, etsaien eskuetan erortzeaz zegoen gazteluaren bazter batean. Esperientzia berri bat izan zen. Segur aski lehen behin ere ikusi ez zuen bere bizitzako alderdi berri bat aurkitu zuen. Loiolako Iñigok ere ezagutu zuen zer zen argaltasuna. Oraindik geroxeago, askoz sakonago sumatu zuen gainera, *hil hurren dagoenaren zantzuak nabaritu zituenean. Hobe zuela aitortza egitea esan zioten*, eta hala egin zuen.

- ***Gogoeta eta lehenaren mina***

**81.** Baina Iñigo atera zen egoera hartatik, eta denbora luzean egon behar izan zuen sendatzen eta suspertzen. Honek egokiera eman zion bere barruan sartzeko: *Noizbehinka hausnarketan egoten zen. Eta hori egiten zuen gizon honi, ordurarte arma jokoak zitzaizkion atsegin, eta izen handia irabazteko gogo bizia eta hutsala zuen; eta fededun izanik ere, ez zen fedearen arabera bizi; ez zion bekatuari ihes egiten; alderantziz, bereziki bihurria zen emakume gaietan eta istiluetan eta arma gauzetan. Ez da harriztekoa, hausnarketan egotean, ordurarte bizi izandako amets eta esperientzia guzti hauek gogoetagai izatea.*

Gogoetagai izan, eta, aldi berean, lehenaren mina nabaritu. Zauriak eta hil hurren egoteak ez zuten bihotz-berritu, aitortza egin izan arren. Haren kezka, bere itxura ona berreskuratzea zen, *munduaren atzetikjoan nahi bait zuen*. Mundu honetan murgildurik bizi nahi zuen, zaldunketa liburuen ameskerien bidez. Loiolako Iñigok lehenengo aurkitu zuena ez zen bere barru sakona izan, bere ametsen mundua baizik. Dena den, gaixotasunak kanpoko isiltasunean bi-



zitzeko egokiera eman zion, eta honek bidea zabaldu zion barruko isiltasun era sakonagoetara sartzeko, horrela bere espirituaren barneneko gogoen azterketa finago eta zorrotzagoak egin ahal izateko.

- ***Hoberenak erakarria***

**82.** Iñigok ez zituen Loiolako dorretxean, berak irakurri nahi izango zituzkeen zaldunketa liburuak aurkitu. Ez zuen, Jesusen bizitza bat (= "*Vita Christi*") eta santuen bizitzako kondaira batzuk (= "*Flos sanctorum*") besterik izan eskura. Eta begirada batean garrantzi gutxikoa den gertaera honek haren bizitzako norabidea aldatuko zuen. Bera ez zen axolakabe horietakoa; besterengan ikusi eta ederretsitako ongiaren aurrean, sentibera zela erakutsi zuen, asmo bikain eta hobeetara bere bihotza zabaltzeko. Kristoren eta santuen bizitza irakurritz, *hausnarketan egoten da, bere baitarako esanez: zer izango ote litzateke, nik, San Frantziskok egindako hau eta Santo Domingok egindako hau egingo banu?* Baina ez ziren hauek haren asmo bakarrak; izan ere, beraren eskueran ez zegoen eta *kondesa eta dukesa baino gehiago* omen zen dama batez maitemindua jarraitzen zuen; eta *burugaldua* zebilen, ametsak egiazat hartuz.

- ***Barruko zatiketa eta borroka***

**83.** *Gogapen andana* honetan, Iñigok bere barruko zatiketa eta borrokaren esperientzia izan zuen. Nahi izatearen eta egitearen arteko zatiketak ez zion, une hartan, haustura sortzen bere barruan. Erraz lortzen zuen bere asmamenean bi horien arteko batasuna, bere buruarengan zeukan uste sendoaren laguntza gaiztoarekin. Bi zaletasunek zeukaten erdibitua; ez zegoen biak onartzerik, eta erabaki eta hautatu zeukan egin beharra. Konturatu zen, bazirela bere barruan *elkarren artean borrokan ziharduten espirituak*. Mundu honetako ametsak bazterrera uzten zituenean, *lehor eta goibel* geratzen zen bera. Eta, alderantziz, santuen antzeko izateko irrikak atzera geratu ondorenean ere, berak *pozik eta alai jarraitzen zuen*. Eta *begiak zabaltzen hasi zitzaizkion, eta, harriturik, berezitasun hori nabaritzen hasi zen*.

- ***Jainkoaren graziaz, beste gizaki bat izaten hasi zen***

**84.** Bere barruko zatiketa honek ez zuen axolakabe utzi. Eta *zintzoago hausnartzen hasi zen aurreko bere bizitza, eta behar-beharrezkoa zuela hartaz penitentzia egitea*. Iñigo bera da, lehengo bere bizitzako bekatuak ezaguturik, hausnarketan ari dena, zerbait nahi duena, erabakiak hartzen dituen. Une honetan hasten dira zehazki Jainkoarekiko harremanak. *Jainkoaren graziaren beharra* sumatzen du, bere asmoak egintzara eramateko. Goitik dator kion kontsolamendua nabaritzen du, eta izugarritzko *nazka ematen dio bere aurreko bizitza guztiak*. Bere biziera aldatu aurretik, Loiolako Iñigok aldaketa sakon bat nabaritu zuen bere barruan. Beste norbait zela ikusten zuen. Bere asmoak egintzara eramaten hasi beharra zeukan. Barne batasun berri bat lortu beharra zeukan, gogoaren eta ekintzaren artean, sentieraren eta bizitzaren artean; ezin bait zuen jasan, bere baitan nahiaren eta izatearen artean sumatzen zuen zatiketa. Eta gizaki berri bat izaten hasi zen.

## • ***Haustura eta askatasuna***

**85.** Ez zeukan gizaki berri izaterik, bere barruan nabaritutako aldaketa nola-bait kanporatu gabe. Aldaketa honek bi eratako haustura edo etena egitean azaldu behar zuen, eta elkarrengandik bereizi ezinak diren bi une desberdinetan, hain zuzen: berriro atzera itzultzeko tentaldia zeukan gainditu beharra, eta bide berria askatasunean hartu eta bertan aurrera egin beharra. Anaia *arrenka hasten zaio esaten, ez jokatzeko zentzugabe; kontutan izateko, zer-nolako itxaropenak dauzkan jendeak berarengan jarriak; balio handia izan dezakeela; eta horien antzeko hitzak; guztiak, asmo ona burutik kendu nahian esanak.* Zuhur jokatu zuen Iñigok, eta, maltzurkeria pixka batekin, *lortu zuen anaia-gandik ihes egitea.* Eta bideari ekin zion, asmotan zeukan bizitzako gogoia egingtzara eramateko askatasunean, nahiz eta gero hainbat arazoren ondorioz, gogo hori uste ezbezalako bideetatik bete behar izan.

**86.** Bideak, bai, aldatuko ziren, baina ez haren bizitzako oinarritzko gogoia. Iñigok bazekien zer izan zen ordurarte. Bazekien etorkizunerako aukeratu zuen bidea. Ez zekien, ordea, norantza eramango zuen bide horrek. Baina ez zuen inondik inora bide hori utzi nahi. Lehenarekiko etena seilatzeko, aitortza egin zion Montserrateko fraide bati, hiru egun iraun zuen aitortza. Aurretik, Arantzazun, garbitasun edo kastitatean bizitzeko zin hitza eman zuen. Montserraten utzi zituen bere armak zin-opari, eta, bere jantzi ederrak erantzirik, behartsu bati eman eta berak erromes jantzi zatar bat jantzi zuen. Hasia zegoen bizitza berria.

## **B. NORBERAREN BIDEARI JARRAITZEA**

**87.** Gutako bakoitzak ere, edozein izanik espirituzko geure egoera, entzun beharra daukagu Garizuma honetan bihotz-berritzera egiten zaigun deia. Gure ibilbidea ez da bukatu. Aurrera goaz geure bizitzan. Egokiera berri bat da orain eskaintzen zaiguna, bide honetan gure Jaunarekin batera, Beraren ondoan eta Berarengan aurrera egiteko.

Aurreko kapituluetan egindako gogoeten argira eta Loiolako Iñigorengan aztertu dugun ibilbidea gogoan dugula, argibide praktiko batzuk eskaini nahi dizkizuegu, bidean gelditu ez baizik eta aurrera egiteko. Edota agian –nork daki?–, guztiz berria den zerbaiti hasiera emateko. Beharbada, eta zergatia jakin gabe, Jainkoak pentsatua daukan eta nahi duen salbamenaren ordua izan daiteke.

## **Behin ere ez dago lekurik etsipenerako**

**88.** Nolanahikoa izanik ere pertsona bakoitzaren erlijio, moral nahiz giza alorreko jokabidea edota jarrera, halako sinesmen sendo batean murgildurik egon behar du pertsona orok. Jainkoak gizaki bakoitza maite du, bakoitzaren bihotz-berritzea nahi du; ez du inor inoiz ahazturik uzten, ezta norberak hala nahi izan duelako urrutiraturik dagoenean ere. Aita onak bakoizka maite du pertsona oro, eta nor bakoitzaren bizitzara begiratzen jarraitzen du; nor bakoitzarengan, itzultzeko nolabaiteko borondatearen hasierarik ba ote dagoen ikusi nahi du. Urruti

gaudelarik ere, Berak ikusten gaitu (ikus Lk 15,20), eta bakoitzaren historiaren hariaz arduratzen da.

Ez dakigu, zer-nolako hitza esan nahi digun Jainkoak bizitzako gertaeren bidez. Horrek ez du esan nahi horrelako hitzik ez denik. Beharbada, ustekabeen argituko zaigu. Edota beranduago ulertuko dugu. Hala ere, gauza batez egon behar dugu guztiz ziur: inoiz entzun behar ez dugun hitz bakarra “etsipen” hitza da. Gure bokazioa bizirako bokazioa da, eta Jainkoak badu indarrik aski, bokazio hori galtzen ez uzteko. Jainkoa “ez da hilen Jainko, biziena baizik” (Mk 12,27).

Ez dugu galdu behar harriturik geratzeko gaitasuna. Ustekabeko gauza harrigarrietara zabalik egonez, konturatu ahal izango gara, guk zuzenean nabaritzen ditugun gauzak ez direla guztia; badela besterik ere. Harriek ere hitz egin dezakete, Jauna gure artean dabilela guri hots egiteko (Lk 19,40). Hitz egin dezakete zalantzaren itzal ilunek ere, erantzunik gabeko galderek, pozaldi garbiek, gure bekatuaren kiratsak, zertarako ez dakigula gertatzen diren hainbat gauzaren zentzugabekeriak, eta baita hots egiteak berak ere. Hainbeste ahotsen artean, zein izan daiteke Jaunak esaten digun hitza?

## **Norbere estimazioa berreskuratzea**

**89.** Hain zuzen pertsonak garelako, eta, fededun izanik gehiago oraindik, norbere estimazioaren kontzientzia berreskuratzea behar dugu. Hala eskatzen du, gizarteak guri aitortzea nahi dugun duintasunak. Ni ez naiz gizartearen ondorio soil bat; ezta gizartearen zati anonimo bat ere. Neure izena eta deitura ditudan norbait naiz. Estatistiketan eta plangintza politiko-sozialetan daukadan zenbaki soila baino askoz balio handiagoa duen norbait.

Jainkoarentzat ere ez naiz izaki anonimo bat. Hark bakoitzasunean ezagutzen nau eta neure nortasunean maitatzen. Haren maitatzeak duintasuna ematen dit. Denik eta doilorrena izanik ere, neure burua errudun jotzen badut ere, eta neure burua estimatzea zail egiten bazait ere, estimazio hori berreskuratzen ez dudan bitartean ez diot neure buruari egiaz begiratzen. Jainkoaren maitasunak duintasuna ematen dit, neure estimazio pertsonalaren oinarri haustezina izan behar duen duintasuna.

Bada zerbait guztiz pertsonala dena eta nor bakoitza gizarte osoagandik bereizten duena. Hor oinarrizten da, pertsona bakoitzari zor zaion balioa. Kontzientzia deitu, subjektibitatea nahiz nortasuna deitu, bada gune bat norberarena dena, balio duena eta duen balio hori aitortu behar zaiona. Nor bakoitzaren “ni” esan ohi duguna da. Bada galdera bat legezkoa dena, gehiago oraindik, saihestezina eta guztiz norberarena dena: zer egin behar dut neure “ni” horrekin?

**90.** Beste interesen eta egitasmo bihurrien zerbitzura erabiliak izatearen aurrean, arreta handiz zaindu beharreko eginkizuna dugu, norbere estimazioaren euskarria aurkitzea. Ez bait da bidezkoa, manipulazioa salatu eta, horren ondoren, nortasunik adierazten ez duen “diotenez”, edota “uste ohi denez” eta antzeko esaldietan galdurik geratzea; izan ere, esaldi horietan, segur aski, nire ordegin, esan eta pentsatu egiten duen indargune edota interesguneraren bat ez-

kutatzen da. Jainkoarekiko gure loturak sasijainkoenganako morrontzan erortzetik gordeko gaituen hari bat izan behar du, inork sasijainko horien opari bihur ez gaitzan. Ez diogu inolako “Zesar-i” eman behar, Jainkoari bakarrik dago-kiona (ikus Mk 12,13).

## **Geldialditxo bat egin isiltasuna lortzeko**

**91.** Zarata asko dago gure inguruan. Baita geure barruan ere. Beldur ematen digu isiltasunak, bakarrik egoteak ematen digunaren antzeko beldurra. Beharbada, geure ni-arekin eta “beronen” arazoarekin topo egin beharko dugula sumatzen dugulako. Argalegiak gara eta hauskorrak, bakarrik egon eta ibiltzeko. Nahiago izaten dugu norbait lagun dugula ibili. Gutxienean, zarata.

Eguneroko eginkizunak, baita legezkoenak ere, horiek berak zarata dira. Horiek eginkizunez hitz egiten digute, erantzukizunez, eman beharreko erantzunez, bete beharreko epeez. Batez ere, interesgarri diren gauzez. Baina ez digute ezer esaten guzti horien esanahiaz. Geldialditxo bat egin beharra dago, isiltasuna lortu ahal izateko. Beharbada, noizbait izan dugu esperientzia hori, gero berriro gertatu ez den esperientzia. Edota agian ez dugu inoiz izan. Zergatik ez hori lortzen ahalegindu? Jasanezinagoa da zaratarekin asperturik egotea, isiltasunaren urduritasuna baino.

**92.** Besteengandik bereziak izan nahi badugu, hau da: “gu geu” izan nahi badugu, tarte baten aldea jarri beharra daukagu. Berezi egin behar ditugu geure kontzientziaren “ni-a” eta gizartearen “beste hori”. Askoz argiago nabaritzen da hori, geure barruko begiradaren esperientzia aberats eta itxaropentsuan. Izaki alorrean dagoen aldea kontzientzia bihurtzen da isiltasunaren berezitasunean. Ez da heriotzaren isiltasuna; geure barruaren barruko isiltasuna da. Zerbaitegatik eskatzen dugu, arrazoiz gainera, barruko bakartasuna. Baina hori eskatzean, bere ondorio guztiekin eskatu behar dugu.

## **Beste ahotsak entzun eta beste munduak aurkitzea**

**93.** Isiltasunean, ohizkoak ez diren beste ahots batzuk entzun daitezke; beste hitz batzuk; beste hizkuntza bat eta, azken batean, beste mundu bat dakarkiguten ahotsak, mundu hori badenik gu ez konturatzeak ez bait du esan nahi, izan ez denik. Eta mundu hori aurkitu egin beharra dago.

Ahots horiek entzun eta bihotzaren mundua aurkitu: espirituarena, aitortu gabeko gogoarena, zehaztu gabeko ametsarena, esanezina delako hitzez adieraztea zail egiten den ahotsaren mundua.

Idatzitako hitza entzun, galdekizunak jartzen dizkidan liburuko hitza, hausnartzera eta zenbait planteamendu egitera behartzen nauen hitza. Batez ere, idatzia eta Liburu Santuan jaso dagoen Jainkoaren hitza entzun, astiro eta presarik gabe irakurriz; eta hitz hori aztertu, otoitz bihurtu eta bizitzara eraman dutenek aurkitu eta azaldutako edukiaren muina hausnartu.

Hitz bizia entzun: kristau elkartean, otoitz taldeetan, gogarte etxeetako isiltasunean, monastegietan eta Gogo-jardunetan esana izan den hitz bizia.

Jainkoak Elizaren bidez niri esaten didan hitza entzun; Elizak gordetzen du, izan ere, Jesusen oroitzapen bizia, eta Elizak eskaintzen digu, Jesusen jarraipena zinez hartu zutenen, eta orain ere hartzen dutenen, santutasunaren aitormena.

## **Bereizkuntza eta erlijiozko elkarrizketa**

**94.** Isiltasunean entzundako hitza barrura sartzen da, argi egiten du eta epai gertatzen da (ikus Heb 4,12-13). Jokabideen, sentipenen eta nahirik sakonenen bereizkuntza prestatzen du. Isiltasuna ez da bereizkeria. Bizitzako taupadak suma daitezkeen egonlekua da; norbera sartua dagoen mundua, eta diren guztiari aurpegi emateko norberak hartzen dituen jarrerak suma daitezkeen egonlekua.

Isiltasunean entzundako hitz horrek onespenuak eta gaitzespenak sortzen ditu, beldurrak eta zalantzak, asmo eta amets ausartak, askatasunez uko egiteak edota huts emate penagarriak. Barruko nahaspila hori zatiketa gisa nabaritzen da; batasunaren hauste eta osotasunaren zatikatze gisa. Egoera nahasi horrek argi baten beharra dauka gauzak garbi ikusteko; argibideen beharra, bere balioa ezagutzeko; eta ekintzara eragingo dioten indarren eta motibazioen beharra, etorkizunari aurpegi emateko. Jainkoa hor sarturik egon bada, sortuko da erlijiozko elkarrizketa; eta elkarrizketarekin baita deia ere, iradokizuna, eskaintza eta, agian, erantzuna edota erantzun hori hartzeko gogoia.

Beharbada, Jainkoak isilik jarraituko du. Hala izanik ere, ez da ezer egin gabe egongo. Etorriko da Haren ordua. Hark beti dihardu (ikus Jn 5,17). Jainkoaren eramanpena munduaren historiara zabaltzen da, baita pertsona bakoitzaren historiara ere. Eramanpenik ezak ez die eragin handiagoa ematen eginkizunei. Bilaketan ez etsitzea, hasitako lana ez uztea, hori da garrantzizkoa.

## **Erabakiaren eta tentaldiaren ordua**

**96.** Bihotz-berritzea ez da hausnarketa hutsa, ez sentimenduen joko soila. Bizitza ez da, gauzak era berri batean ikusi, sentitu eta balioztatze hutsarekin aldatzen. Hori oso ondo dago eta beharrezkoa da. Baina beste pauso bat ere eman beharra dago. Hasi, sendotu eta indartu behar dugun biziasmo berriak, geure gogoia eta borondatea ere erabaki horrekin lotura egokian jartzea eskatzen du. Nolanahi ere, bizitza bere osotasunean hartzen duen biziasmoa da hemen esan nahi dena, hau da: Jainkoarenganako eta senideenganako maitasunean hezur-mamitzen den biziasmoa. Ez bait da nahikoa “Jauna, Jauna” esatea, Jainkoaren erreinuan sartzeko. Zeruetako Aitaren nahia egitea, hori da beharrezkoa (ikus Mt 7,21).

Maitasuna dagoen tokian baztertua geratzen da beldurra (ikus 1 Jn 4,18), itxaropenez betetako alaitasuna sortzen da, edota, gutxienean, bizitzarenganako eta gure euskarria den Harenganako konfidantza. Maitasuna itxaropenarekin batean joaten da. Bazko eraberritu eta askatzailean Jauna igarotzen den lekuan, ez da ezertxo ere lehen bezala geratzen.

Hala ere, fedea beti izango da iluna; munduak ilunbetan jarraituko du, Jainkoaren argiaren distirarik gabe; gizakiaren grinek zatiketa sortuko dute betiere, espirituaren egintza den izaki bateratua lortzera behin ere iritsi ezinik. Beti hor dagoen arriskua izango da “tentaldia”. Baita zintzoen aspertzea ere, neke psikologikoa, edota bidean aurrera jarraitzeari uko egitea.

## **Elkarri lagunduz elkar indartzearen ordua**

**97.** Gogoaren sendotasuna berritzeko ordua da. Jainkoaren maitasunean sinesten jarraitzeko unea ere bada, Jainkoak ez bait du deia bakarrik egiten; Bera gure aurretik doa eta “erakarri” egiten gaitu; Beraren ondoren guk egin nahi dugun bidea egiten du Berak ere. Behin berriro, “graziaren” ordua da: eskatu, eman eta onartutako “graziaren” ordua; uste onezko apaltasunaren eta maite gaituen Harenganako ziurtasun eraberrituaren ordua.

Eta geure senideen aholkuaren laguntza ere eskatzeko ordua da, adiskidearen laguntasunak gure konfidantza merezi bait du, guri egia esateko eta egia horretan eusteko gauza delako; gainera, ona delako geure iruzurrak agerian jartzeari, eta ezagunak diren zenbait gauza gogora ekartzea eta besteren ahotik entzutea. Izan ere, geure barruan, geure argaltasunaren pitzatua daramagu, eta pitzatu hori “besteren” laguntza bizkortzailearen dei bihurtzen da.

## **Otoitz ibilaldi bat**

**98.** Ez dugu lehen zehazki esan. Agian ez zegoen esan beharrik ere. Jakinaren gainean edota jakin gabe, otoitz ibilaldi bat egiten aritu gara bidean zehar. Gure solaskidea, Jainkoa berbera, geurekin egon da eta bidelagun izan dugu. Guk pentsatu eta esan dezakegun baino askoz barrurago, hain zuzen. Bera “Bestea” izan da beti, eta ez gaitu behin ere bakarrik utzi. Hala izan ez balitz, ez zen guzti honetatik ezertxo ere gertatuko. Sendotasunik gabeko hutsarte bat besterik ez zen izan izango.

Hori jakitea, aitortzea, esatea, hori da otoitza. Oroz gaindiko gaiekiko gure harremanak bizkortzen dituen otoitza. Gai horiek, elkarrizketa bidez, geure baitaratzen dituen otoitza, eta maite gaituen Harekin elkar ulertzeko bidea ematen diguna. Azken batean, bidea zabaltzen digun otoitza, Jesukristorengan agertu zaigun Jainko onaren aurpegia aurrez aurre aurki dezagun. “Ezkutuan ikusten duen Aitari” isiltasunean egindako otoitza (ikus Mt 6,6).

**99.** Agian, irudipen gaizto bat izan genezake: alegia, gure ibilbidean lagun egiten digun otoitzak ez duela isiltasun handi, hotz eta ilun bat beste erantzunik. Baina izugarritzko bakardade horretan, otoitzak, fedean sendo irauten duenaren gogo bizia sortzen du, fededunak ez bait du nortasunik gabeko ezerezean betiko ahazturik geratuko denaren etsipenean erortzerik onartzen. Otoitza, denen gainetik, fedea da gaur ere, eta uste ona.

Arrazoi dute uste dutenek, gizakiak beharrezkoa duela, gaur inoiz baino gehiago, traszendentziara zabalik egotea esaten diogun giza alderdi hori; norberak nabaritu eta bizi izandako traszendentzia da hori, guk, fededunok, otoitza

deitzen dioguna. “Otoitz egitea, gure ‘ni-a’ mugagabeko ‘Zu-ri’ zabaltzea da, elkartean zabaldu ere” (G. Marcel).

## **Sakramentuzko elkarketa Elizarekin**

**100.** Jainkoa bera izan da borondate oneko gizakiaren bila ibili dena. Kristauari lagun egin dio kristau elkarteak ere. Berau izan da Jesusen oroitzapen bizia gorde eta eskaini diona. Leuna edota, agian, zalapartatsua izan den ibilbide horretan, fededunak “santuekiko elkartasunaren” beharra sumatu izan dezake: hitzaren eta sakramentuen bidez diharduen Espirituaren indar santutzailea eskuratu nahi bizia. Bidezkoa da, bihotz-berritzearen ibilbidean, bidari den kristauak Elizarekin elkarketa zehatzagoa izan nahia, beraren bitartez eskuratu eta ospatu ahal izateko Jainkoaren barkamena eta bakea, Jesukristorengan.

**101.** Berriro bizi nahi ez dena ukatu eta zapuzteak, beharrezkoa du hori agindu eta ontzat ematea. Errua eta bekatua “esan” egin behar dira. Zerikusi handia du psikologiarekin barkamenaren sakramentuak. Hain zuzen ere, sakramentua, oso sakonak diren giza alderdiak adierazten dituen ezaugarria da. Baina hori baino askoz gehiago ere bada; Jainkoaren hitza da, esan eta entzundako hitza: “Zoaz bakean”, eta bizi Jesusen antzera, bizitza zuzendua, eraberritua, indarberritua. Bizi alai, errua kendu zaizulako; bizi pozik, senideekiko solidaritzan, norberaren etorkizunerako eskaintzen den biziasmoa dastatu duzulako.

**102.** Ibilbide honetan, kristauak Elizarekin ere topo egiten du Eukaristia ospatzeko; senidetasunaren jai otordua bait da, maitasuna oinarri dela egin behar den bizieraren aldarrikapena, Bera datorkeenean osotasuna lortuko duen agintzaria, eta aldien eta bizitzaren betearen aurreratzea. Bihotz-berriturik Jainkoarengana itzulitako bakoitzak hondorik gabeko esperientzia izango du orduan: maitasunean eta batasunean bizitzera gizakiaren bihotzari egiten zaion deiak izan dezakeela bere erantzun betea, Jainkoak berak bihotz onez egindako dei hori Jainkoaren bokazioa zelako.

## **Bizitza bere osoan hartuta ekiteko ordua**

**103.** Eta, azkenik, “ekiteko” ordua dator, erabakien eta ekintzen ordua, hori bait da aldaketa egiazkoa eta benetakoa dela ziurtatzen duen ezaugarria. Baieztaatzeko garaia da, fede aitormena egitekoa eta bizitzako testigantza ematekoa. Bekatuari eta Jesusen jarraipenerako eragozpen gertatzen zen guztiari, argi eta garbi uko egiteko garaia. Bizitzako gorabehera jakinetan ezagutzeko ordua da, zer-nolako eskakizunak dituen zehazki, Jainkoarenganako maitasunak, eta senide eta giza elkartearenganako maitasunak.

**104.** Bihotz-berriturik Jesukristoren jarraipenari ekiteak ez du esan nahi, horrekin kristauak mundutik eta gizartetik ihes egiten duenik, ezta norberagandik edota bere arazoetatik ere. Ez du kristau elkartetik, ez beronen behar eta egitasmoetatik ere, ihes egiten. Alderantziz, ingurune guztiarekin harreman historikoak izatea esan nahi duen bizitzan sartzen da buru-belarri, bertara zoriontasunetako espiritua eramateko. Bere pobretasunetik, bakegile eta zuzentasun sortzaile izan nahi du, poz eta itxaropen eramaile; sufritzen duenarengandik

hurbil egon nahi du; jakitun izan nahi du, gurutze eta guzti daraman ibilbide horrek bizia duela irtenbide Jainkoaren erreinuan, eta beronetan Berpiztuaren garaipenaren egiazko indarra aurkitzen duela oraintxedanik.

Gizakien arazoak bere arazotzat hartzen ditu, eta, horregatik, bere laguntza eskaintzen du beraien konponbiderako, bere bokazioaren eta ahalmenen neurrian. Badu sinesmen, dohaintasunak duen edertasun eta handitasunean. Badaki, negar egiten dutenekin negar egiten, eta pozik daudenekin pozten, egiazko maitasunaren eraginez horiendangik hurbil dagoelako bihotzez. Badaki, azkenik, bere egintza honi esker, goretsia gertatzen dela zeruetan dagoen Aita (ikus Mt 5,16).



## IV.- JAINKOAREN DEIAREN OIHARTZUN

**105.** Pastoral Idazki honetan zehar Jaungoikoaren hitza eskaini nahi izan dizuegu, agertuz nola hitz horrek maitasunetik dei egiten dizueten eta eskatzen, zeuen bihotzak berri ditzazuen. Ez dugu hau beste helbururik izan: salbameneren berri ona zuei hots egin, horrela geure buruak presta ditzagun, Jainkoagandik datorren eta beti irauten duen bizia geureganatzeko. Eta orain, gure pastoral ministeritzak ezartzen digun eginkizuna betez, hitz batzuk zuzentzen dizkizuegu, bihotz-berritzearen mezua zuen bizitzako egoera desberdienei egokitzen laguntzeko ustetan. Ez dugu beste asmorik, Jainkoaren deiaren oihartzun izan, nahiz eta beharrik ahula gertatu oihartzun hau.

### **Apaizei**

**106.** Senide eta lagun zaituztegun apaizontzat dira gure lehenengo hitzak. Oharturik gaude, guretzat, gotzainontzak ere, badirela gure hitzok, zuekin batera parte hartzen dugunez Jesukristoren apaiz ministeritzan. Jaungoikoaren eta gizon-emakumeen maitasunera bihurtzeko egiten zaigun deia grazia bat da, guk ahaztu eta gaitzetsi behar ez dugun grazia bat. Eta Garizuma honetan zehar, bereziki geuk behar dugu izan, beste gainerakoen bihotz-berritze eta baketzearen ministeritzen geure zerbitzua egingo dugunak. Baina bakoitzaren mailan ere, deia jaso beharrean gaude eta bihotz-berritze prozesuan sartu behar ditugu geure buruak, gure esku utzitako kristau elkarteetan prozesuok biziko diren neurrian.

#### **• *Ministeritzaren grazia berpiztea***

**107.** Eragiten zaituztegu, Gotzainaren eskuegartzeaz eman zitzaizuen grazia berpiztu dezazuen (1 Tm 4,14), Ebanjelioaren zerbitzurako den grazia. Nahiago zenukete zeuen ministeritza onartuko izango balitz gizartean, eta baita kristau elkarteetan beretan ere. Baina ondo dakizuen, zeuen zerbitzuaren balioa ez da neurtzen gaurko gizon-emakumeek egin diezaiokeeten harreraren neurritz. Behin baino gehiagotan, gizon-emakumeek estimurik txikiena ekartzen diogun hura izan ohi da beharrezkoena. Eta gure bihotz-berritzearen osagaietako bat, apaiz ministeritzaren balioan sinestea da, zuen bizitzak eskaini dizkizuen ministeritzaren balioan.

#### **• *Poztasun baketsua eta elkarri laguntzea***

**108.** Ihes egiozue, batez ere, etsipenari eta itxaropenik ezari, bi hauek erraz eramán gaitzakenez tristurara, eta baita ezkutuko garratzasunera ere. Jainkoaganako eta senideenganako maitasuna den Biziaren berri ona dugu zabal-tzen. Ziur gaude gu, asmatu egin zuela Jesusek bizi izan zen bezala biziz, nahiz eta sufritu beharrik ere izan zuen. Bidezkoa litzateke, gure bizitzek poztasun baketsua ispiatzea, ez axaleko poztasuna, sakona baizik, Jaunagan salbatuak izan garela sentitzearen bizikizunetik sorturikoa. Poza, egiazko bihotz-berritzearen adierazpen da eta ondorio (ikus Flp 4,4-5).

Elkarri lagun egiozue betetzen dituzuen apaiz lanetan. Baina, batez ere, laguntza eman elkarri, poztasun handiagoko fededunak izan zaitezten, elkarrekin otoitz eginez, harrera oneko hurbiltasunean, askatasunez, zuhurtziaz eta Ebanjelioaganako leialtasunez aholkuak emanez, benetako laguntasunean eta oporrak eta atsedenaldiak osasuntsu gozatuz (ikus *Presbyterorum ordinis*, 8 z.).

- ***Lekukoak***

**109.** Izan zaitezte Jesusen Ebanjelioaren lekuko, hitzezko aitortpena eginez, eta zerbitzu-gogoan une oroz oinarritzen den bizitza testigantza emanez. Hainbeste arrazoiengatik zatikatua dagoen gure herri honetan, ahalegindu zaitezte batasunaren, baketzearen eta bakearen egile izaten. Ez daukazue guztiei eta gauza guztietan arrazoa ematerik. Baina inork ez diezazuela eragozpenik jarri, guztiak, bereizketarik gabe, maita ditzazuen, batez ere behartsuenak eta baztertuenak.

## **Familiei**

- ***Familiaren garrantzia***

**110.** Beste ezer baino lehen esan nahi dizuegu, zuek ere oso garrantzizko zerbait zaretela gizartean eta Elizan. Hala pentsatzen dugu eta hala esaten ere dugu. Ondo dakigu, nolako erasoak jasaten dituen famili erakundeak gaurko gizarteko ingurugiroan. Uste duenik ere bada, familiak bete duela bere egitekoa historian, denik eta garrantzitsuena izan egiteko hori iraganean. Bestelakoa da, ordea, guk uste duguna. Funtsezko elkarte giharra da familia gizarte zibilean. Eta kristau elkarteak egiazko “etxeko eliza” ikusten du familian.

Adoretzen zaituztegu, berreskura ditzazuen familiak duen balioa eta familiarri zor zaion estimua. Ez da gauza erraza, sinesten ez denaren alde borroka egiten. Zaila da egitekorik ez duen zerbaiti iraugarri sendoak jartzen. Berreskura ezazue zeuen familien duintasun eta balioaren estimua.

- ***Maitasuna eta familietako istiluak***

**111.** Maitasuna dago familiaren oinarrian. Ezkonduen arteko maitasuna, gurasoen eta seme-alaben arteko maitasuna, senideen arteko maitasuna, zuen zaharrei diozuen maitasuna. Jesukristorengan senar-emazteen maitasunak duintasun berezia hartzen du, eta Ezkontzako sakramentuan etengabe hots egiten da leial, sendo eta itxaropentsu izatera maitasunean. Familia berezko izatez da maitasun elkarte bat. Familiaren aldetik begiratuta, bihotz-berritzeko deia batez ere da maitasunerako deia da, familia zaindu eta garbitzeko deia, maitasunean aurrerabide egiteko deia.

Ezagutzen ditugu famili barruan gertatzen diren istiluak, eta ezagunak zaizkigu tirabira horiek sortzen dituzten gizarte, kultur eta erlijio mailako sustiraiak. Jakin ere badakigu, ordea, nolako garrantzia duen pertsona jakinen jorkabideak horrelako istiluak gainditu eta konpontzeko garaian. Elkarriketan, elkar ulertzean eta barkamenean mamitu behar dute, maitasunetik datorren famili bizitza bizitzeko erak. Ez da ahaztu behar, sendotasuna ere, batez ere

norberaren uste osoan eta zintzotasunean oinarritzen den hura, jokabide balio-tsua dela, eta beharrezkoa ere bai, pertsonak benetan maite dituenarentzat, eta pertsonetikiko erantzukizun bat duenarentzat.

Gurasoek ez dezatela uste izan, berek garai batean bizitutakoa, hura dela, besterik gabe, hoberena edo ona. Baina seme-alabek ere iragana ez dezatela gaitzetsi, jadanik gaur “zokoraturik dagoelako” bakarrik. Bestelakoa izatea ez da nahastu behar, besterik gabe, ez txarrarekin, ez onarekin. Elkarren artean egitiko gogoeta-ahalegina izan daiteke istiluak konpontzeko bidea edota, gutxienez, maitezko hurbiltasuna ere bai, hurbiltasun honi esker sendotasuna ematen zaiolarik batasunean iraun nahi duen bizitza elkarteari.

- ***Familia elkartua baina zabalik dagoena***

**112.** Familia bat osatzen dutenen arteko batasuna aberastasunik estimagarrirenetakoa da. Senar-emazteen artean ematen diren berezko desberdintasunek, bata gizonetako delako eta bestea emakumezkoa, eta gurasoen eta seme-alaben artean dauden belaunaldi mailako desberdintasunek, ez dute hautsi behar batasun hori; aniztasunean aberastu egin behar dute, guztiak oretu behar dituen elkar maitasunean.

Hala ere, aipatu batasunak ez luke erori behar berekoikeria kolektibo batean. Gizartearen eta Elizaren beharra du familiak, osabetako bada. Baina bereetik eman beharra dauka gizartearen eta Elizaren onerako. Badu familiak bete beharreko zeregin sozialik (ikus Joan Paulo II, *Familiaris consortio*, 44 z.). Familia bat osatzen dutenak, batzuk besteen alde beren buruak eskaintzeko gai izan bai, baina gainerakoek kezka norberarenak egiten asmatzen ez dutenean, berekoikeria kolektiboa sortzen da, eta honek etxeko bizitza erretzen du, azken batean. Bere baitan ixten den familia, bere itxitura barruan itotzen da. Bestalde, bere gizarte eta eliz ingurugirora zabalik dagoen familia, zenbat eta gehiago besteiei eman, orduan eta gehiago aberasten da.

- ***“Etxeko eliza” bat***

**113.** Familia deiturik dago “etxeko eliza” txiki bat izatera. Izena ezezaguna gerta daiteke, baina izana aspaldikoa da. Esan nahi da, gizakumeen bizileku bat dela familia, eta beronetan fede-heziketa egiten dela, eta kristau bizitza eramaten dela. Gurasoek ezin duzue zeregin hau bertan behera utzi, eskolaren eta parrokiaren beraren eskuetan. Bi erakundeok beranduegi iritsiko lirateke seme-alaben nortasunaren garapenezko prozesuan. Bestalde, familiak lagun egitea berezko eta utziezinezko osagaia gertatzen da fedearen eta kristau bizitzaren garapenean.

Ez diezazuela iruzurrik egin umearen askatasuna aipatzen duten hitz engainagarriek. Umea erro-errotik da behartsu, eta nahitaez beste gainerakoek eraginpean aurkitzen da. Gurasoak dira, jatorriz beren bizkar hartu behar dutenak seme-alaben bihotzean eta espirituan “eragiteko” zeregin ederra. Gurasoek egin ezean, izango da besterik hori egingo duenik, ideologi jarrera desberdinetatik egin ere. Egin harrera ona zeuen seme-alabei, eta, hori egiterakoan, hartu zeuen bizkar beroriek osotasunean hesitzeko erantzukizun ederra. Fedean eta kristau bizitzan ere bai.

Fedea Jainkoaren erregali handia gertatzen da, etxea osatzen duten guztien artean bizitzen denean. Guraso askok sufrimendu gogorra daramazue zeuen seme-alaba batzuk fedetik kanpo bizi direlako, zeuek, hainbestearainoko ahaleginez, eskaini diozuen fedetik kanpo. Fede-aitormen neurritsu eta nekazina egizue zeuen seme-alaben aurrean. Eutsi elkarrizketari. Egin otoitz zeuen seme-alaben fedeagatik.

## **Adinekoei**

### **• *Burujabetasuna eta bihotz-berritzea***

**114.** Zuei hurbiltzen gatzaizue orain, maitezko begirunez hitz bi esateko. Gure herriko gizon eta emakumeok, jabetzen gara, asko eta garrantzitsuak direla zuen gain dauden zeregin eta erantzukizunak. Hor ikusten zaituztegu famili bizitzako lanetan, lantegi eta profesio munduan, hezkuntza eta kultur etxeetan, administrazio zereginetan, osasundegietan, sindikatu eta politika karguen ekintzetan. Denen artean ari zarete herri bat, gizarte bat, etorkizun bat eraikitzen. Elizaren aurrean eta beste sinesbideen aurrean, bidezkoa den autonomia bat eskatzen duzue, eta profesibidean eta herrigintzan duzuen gaitasunaz batera, autonomia hori bizi nahi duzue. Pozten gara, zeuen ahaleginei esker lortzen dituzuen arrakastekin. Eta bat gatoz zuen sufrimendu eta nekeekin, ezarritako beste helburuak lortzeko dituzuen zailtasunen aurrean.

Esan nahi dizuegu, zuei ere zuzentzen zaizuela bihotz-berritzeko deia, eta dei hau, nahiz eta Elizatik etorri, ez dela Elizarena. Apaltasunez diogu hau, baina uste osoz ere bai, Jainkoaren deia dela, eta Elizak, zuek zeuen kontzientzietan entzun dezazuen nahi duela. Zeuen izatearen muinean hots eginiko deia dela, edota, apalxeago esanik, zeuen bizitzetako egia bilatzera eragiten zaituzten deia. Gure nahia da horrelako galderak egin ditzazuen: azken batean, zer bilatzen duzue?, noren zerbitzari zarete?, zer itxaroten duzue? Galderok lagun zaitzatela nahi genuke Jainkoaren ikuspegian jar zaitezten.

### **• *Zuzentasunaren zerbitzuan, Jainkoari begira***

**115.** Ez gara zuen esparruan sartzen. Hoberenaren eskaintza egin nahi dizuegu: zintotasunak gizartearen zerbitzuan jartzen denean, dakarren poza nahi dizuegu eskaini; jakinik, zuen jokabide pertsonalak eta taldekakoak gizartea baldintzatzen duela, era batera edo bestera. Denentzat oso garrantzizkoa den zerbait gogorarazi nahi dizuegu, eta, ausartzen gara esatera, bera dela zuen arrakastaren edo zuen huts ematearen neurri betea: ez dagoela bizitza hutsalik, ongiaren edo gaizkiaren zerbitzura dagoen zerbait sortzen delako bizitzatik. Zuzentasunaren edo zuzenkontraren sortzaile zarete, askatasunaren edo zapalkuntzaren iturri, elkartasunaren edo zatiketaren eragile, egiaren edo gezurraren sorburu, jartortasunaren edo azalkeriaren sortzaile. Zuek ere dohatsu eta zoriontsu izan zintezkete, “zuzentasunaren gose eta egarria” sentitzeko gai bazarete, eta zuzentasunaren alde borrokatzeko gai. “Bila ezazue Jaungoikoaren erreinua eta haren zuzentasuna” (Mt 6,33).

Gomita egiten dizuegu, ez zuen bizitzako katramilatik zeuen buruak atera ditzazuen, baizik eta Jainkoari begira jarri zaitezten. Jokabide ausarditsu bat

eskatzen dizuegu, zeuen bizitzarekin aurrez aurre aurki zaitezten. Zuetako bakoitzarentzat ere, Jaungoikoa Salbatzailea da eta Askatzailea. Honetan berdin gara guztiak. Sentipen honetan biziko bagina, guztiok hurbilago aurkituko ginageteke, begirune handiagoko, egiatiago. Hobeto hartuko genuke gauzen, gertakarien eta historiaren benetako neurria. Senideago izango ginageteke, eta, beraz, ez hain geurekoi eta ustezko.

- ***Laguntza eman bizipozari***

**116.** Zeregin ederra duzue eskuartean, beste gainerakoei bizipoza zabaldu beharra, berau bideratzen duten helbideak eta baldintza objektiboak sortuz. Egia da, gizarteak aldatu behar duela. Baina hori bezain egia da pertsonak ere aldatu beharra daukagula. Oraintxe bertatik hasi gintezke. Hori ere bihotz-berritzea deitzen zaio.

### **Gazteei**

**117.** Guk zuei, gazteoi, zuzenduriko hitzak maitasun eta interes berezia du. Hizketan hasi baino lehen, geure egin nahi dugu gazte hari Jesusek zuzendu zion begirada, Berak ezkutatu nahi izan ez zuen maitasuna sentitu zuen hartan. Agian irudituko zaizue, zeuen eta gure artean ez dugula sortzen sintoniarik, sakontasunean elkar komunikatzeko hain beharrezkoa izanik ere sintonia hori. Hori hala izanik ere, ez genuke geratu nahi hitz bi zuei esan gabe.

- ***Zuen zailtasun eta oztopoak***

**118.** Mundu zail batean bizitzea egokitu zaizue, eta alderdi askotan kontraesan ez agertzen den munduan. Zuen ideial sutsuenekin bat etor daitezkeen baieztapen biribilekin batera, errealitatearekin topo egiten duzue, eta honek pentsarazten dizue, edukirik gabeko hitz hutsak baizik ez direla horrelako baieztapenak. Badirudi munduak berekin dituela eta eskaini ditzakeela, erabat osabetariko bizitza lortzeko behar zenituzketen gauza guztiak. Bizitzan, ordea, jabetzen zarete, zuetako askorentzat itxirik daudela ateak eta ibili nahiko zenituzketen bideak, nahiz eta ahaleginak eta sakrifizioak eginez. Guzti hau, behin baino gehiagotan, zapuzketa etsigarrien sorbutu izan ohi da.

Ezekotasun hutsezko jokabidetara lerratzekeo tentaldia ezinbestekoa da. Izan ere, ez dira gutxi horrelako bideak hartzen dituztenak. Ez dizuegu errazkeriazko ulermenak dakarren gezurrezko kontsolagarriarik eskaini nahi, gutxi lortuko genukeenez. Batez ere esan nahi genizuekeena da, zuetako bakoitzaren bizitza errepikaezina dela eta horrela balioztatu behar duzuela. Ez du merezi bizia hondatzeak eta galtzeak. Zure “nitasuna” bizitza baten adierazpena da, eta bizitza hau erabat sarturik dago Jainkoa dagoen ikuspegian. Eta Jainko honek, orain eta hemen ikusten dugunaz harago, badu zurekiko arretarik.

- ***Kontraesanaren arriskua***

**119.** Zeurok ere kontraesanean erortzera eragiten dizuegu. Salatzen dituzue, eta arrazoiz gainera, azaleko kontsumismoaren eskemak, bakoitzaren berekoikeriak, ideialik gabeko utilitarismoa, indarraren eta gizarteko komunikabideen esku-sartzeak, norgehiagoka suntsitzaileak. Baina gero sufritu egiten duzue

zuen ezinagatik, edota ez zaretelako gai gurdi horretan bertan lekua hartzeko. Egon behar du beste zerumugarik, eta zuen espirituak gai izan behar du, zerumuga horiek aurkitu eta bizitzeko.

- ***Jesukristo gaur ere baliagarri***

**120.** Jesukristok oraindik ere badu gaurkotasunik, eta erantzuna ere bai zuen asmorik ospetsuenentzat. Zeuok zarete, agian, hori ondoen uler dezakezuenak. Jesusek nahi izan zuen, gauzak alda zitezela bera etortzearekin, bere hitzarekin eta bere jokabidearekin. Asmo berberak dituzue zeuok ere, nahiz eta iluntasunak izan zeuon bihotzetan, eta, zergatik ez esan, baita zeuen ahuldadeak ere. Jainkoagandik datorkigun bihotz-berritzeko deiak hots egin dezake zuen baitan, barruko eta kanpoko egokitasuna eskatuz. Eredu bereziki garrantzitsua izan zen Jesus, barruko batasunaren eta bizitzako jatortasunetik begiratuta. Bera “ez zen izan batean ‘bai’ eta bestean ‘ez’; Harengan denak ‘bai’ egin ziren” (2 Kor 1,19). Eta Jesusengan hitz hutsa baino zerbait gehiago ere izan zen. Bere bizitza osoa hitza izan zen, etengabe esana eta esandakoari etengabe eutsiaz. Dei egiten dizuegu hitz horrekin topa zaitezten, hitza entzuteko eta betetzeko gai izanez. Gure nahirik handiena, bihotzez esaten dizuegu, gure ahuleria dela eta, zuengan etsipenik ez sortzea da, Jesusen mezua eskaintzeko egiten dugun aurkezpenean.

## **Gure edadetuenei**

- ***Biziak zuengan dirau***

**121.** Hemen-hauetan adinean aurreratuta zaudetenoi ere bihotz-berritzeko deia zuzentzen dizuegu. Pentsa dezakezue alferrikakoa dela. Agian usteko duzue, zeuen bizitza gaurgero buruturik dagoela eta ez dagoela zertan pentsatu, bizitza hori aldatzean. Edota adinean aurreratuta zaudetelako, ez daukazuela aldatzerik, jadanik bukatu ikusten duzuenek zeuen bizitzetako ibilbidea. Edota gaitxoaldiak moztuta utzi dituelako zuen bizitza asmoak, zuek uste baino lehenago moztu ere. Behar bada bati baino gehiagori, zaharra ez izan arren, ekonomi eta sozial arrazoiek itxi diote profesio langintzarako bidea.

Beste ezer baino lehen, esan nahi dizuegu, espirituak bizitzaren erritmoa ez datorrela bat indar fisikoen urritzeak, edota egoera historikoen, ezarritako erritmoarekin. Asmo ederrenak eta oparoenak oraindik izan dezakete leku zuen bihotzetan. Bizitzako eskarmentu luzea duzue, hainbeste egoera eta jokamolde-tan zeuenganatu duzuenak, eta ikuspegi zehatzagoa izan daiteke gaur zuena, bai giza gertakizunei buruz, bai hauen balioztatzeari buruz. Badakizue gauzak beste inork baino hobeto neurtzen beren neurri zuzenean. Baduzue asti, gogoetak egiteko. Otoitz egiteko ere bai.

- ***Egizue on***

**122.** Giza aberastasunaren jabe zarete, eta ezin utzi dituzue zeuen ingurukoak, aberastasun horretaz baliatu gabe. Zeuen buruetan bakarrik ez pentsa; besteenagan ere pentsa ezazue. Ez begiratu zer hartuko duzuenari bakarrik; begiratu baita ere eskaini dezakezuenari. Elkar ongi eramatearen eta bakearen eragile izan zintezkete familietan eta gizartean.

Oraindik ere baduzue astirik eta indarririk aski; laguntasun, poz eta laguntza inork baino beharrago dutenen zerbitzuan jar ditzakezue asti eta indar horiek. Ez egin ukorik. Saia zaitetze, gainerakoek bizitza atseginagoa izan dezaten. Esku zabalak izan zaitetze era guztietako etxe eta erakundeekin, gizartearen onerako, eskatzen dizueten laguntza ematen. Ez uka zeuen laguntzarik kristau elkarteari ere eta beronen langintza eta zerbitzuei. Famili barruan izan zintezkete txikienen lehenengo fede hezitzaile. Askotan gurasoek ez dute ez astirik, ez erlijio sentiberatasunik aski, Jainkoaz beren seme-alabei hitz egiteko, eta hauei erlijio adierazpenaren lehenengo ikasbideak erakusteko.

- ***Izan uste on Jainkoagan***

**123.** Eta zeuok ere Jainkoagana bihur zaitetze, eta Berari begira jarri. Agian zuen bizitzako beste garaietan baino hurbilago sentituko duzue Jainkoaren begirada. Zuek zeuon seme-alabak maite dituzuen baino gutxiago ez zaituzte maite Jainkoak. Itxaron Jaunagan. Zuen bizitzak izan duen aberastasuna ez da betirako galtzen, Jaunaren eskuetan uzten baduzue. Zuen hutsegiteen historiak ere baluke konponbiderik, Harengana uste osoan hurbiltzen bazarete. Egon ziur, ez zaretela sekulan bakarrik gertatuko, ezta zuek beste ezer baino gehiago maitatu zenituztenek uzten bazaituzte ere. Sinets ezazue Jaunak esana: “Ni naiz biztuena eta bizia” (Jn 11,25).

### **Bereziki sagaraturik zaudetenoi**

**124.** Ezer baino lehen kristauak zarete, bataiatuak, fededunak. Hau da zuen pozaren arrazoirik nagusia eta zuen sagaratze bereziaren oinarria. Esan zizuen Kontzilioak. Zuen “sagaratze bereziak Bataioko sagaratzean du bere azpi-azpiko sustraia, eta Bataioko sagaratze hau beteago adierazten du” (*Perfectae charitatis*, 5 z.). Ez dago bestelakotasunik zuen eta kristauen artean. Hala ere, bokazio berezia duzue. Ez daukazue zertan ahaztu, ez zertan gorde, bokazio hau. Zeuok zarete bokazioari bere balioa eman behar diozutenak, horrela zuen erantzuna ohartuagoa izan dadin, beteagoa eta gozoagoa.

- ***Zoriontasunen espirituan***

**125.** Bihotz-berritzearen dinamismoa aurkitu, sendotu eta indartzera adoretzen zaituztegu, zeuen botoei eta zeuen sagaratzeari dagokien arabera. Maitasuna datza zuen buruak eskaintzearen sustraietan, maitasuna da zuen bizitzako helburua. Eta maitasuna bizitzeko duzuen era berezia hau baizik ez da: aparteko oinarri bat, zuen bizitza zerbitzuzko maitasunari bete-betean eskain diezaiozuen (ikus PC, 5. eta 6. z.).

Zoriontasunek oihartzun berezia behar dute izan zuen baitan. Ez botoetara eta erantzukietara bihurtzen den inposaketa bait litzan, baizik eta espirituaren adierazpen bezala, era honetan libreago sentitzen zaretelarik Jesukristori jarraitzeko. Zuen bizitzak ez dira mozketak eta murrizketak jasan dituzten horietakoak. Jainkoaren erreinuko balioak bizitzeko modu bat izan nahi lukete, jadanik gure artean dagoenez erreinu hori. Askorentzat ezkutuan dago, eta usmaezina da. Horrelakoentzat egiazko “epifania” bat izan zintezkete, eta harrigarritzko adierazpen bat.

- **“Kontrastagarri” zareten lekukoak**

**126.** Zuek eta zeuen elkarteok deiturik zaudete, gaurko munduaren ustezko “baliokin” kontrastean dauden gauzetan aitorpena egitera. Ebanjelioaren aldetik erabatekoak izatea dagokizue konformista den gizarte batean, eta askotan munduko irizpideei egokitzeko tentaldia duen Eliza batean. Eta orduan bakarrik hartuko zaituzte modu honetako lekuko bezala: horrela bizitzetik datorkizuen pozak zuen bizitza indarberritzen duenean. Eta erantzun bat aurkituko dute zuengan, “bestelakoa” eta jatorragoa den zerbait, arrazoi osoz, bilatzen dutenek.

- **Errukian**

**127.** Bereziki gomitatzen zaituztegu, “errukiak” blai eginiko bizitzak eraman ditzazuen, behartsuen eta baztertuenei lehentasuna emanaz. Zuen egintzen handitasuna dela eta, ez zaitezte norgehiagoka hasi munduko gauzetan. Saia zaitezte bide berriak zabaltzen, sufritzen dutenen ondoan egonez, eta berauek dohainean maitatuz. Benetan iaoak izan zaitezte maitatzeko duzuen gaitasunean, “behar baino gehiago” maitatuz agian, hau da, neurririk gabe. Eta izango zarete, eta agertuko ere bai, egiazki zoriontsuak.

## **Kristau elkarteei**

**128.** Garizuma honetan zehar, kristau elkarteetan inoiz baino ozenago entzungo da bihotz-berritzera deitzen duen Jainkoaren hitza. Liturgi ospakizunek penitentzi eite nabarmena izango dute. Bazkoak bere ospakizunetan adieraziko du, Kristo berpiztuaren garaipenak dakarren poza. Bazkoak ziurtatuko digu, biziak mende duela heriotza. Gurutziltzatua berriro bizira ekarri zuen Jainkoaren indarra agertzea, hau izango da kristau itxaropenaren oinarriker sendoena, Jaungoian eskaintzen zaigun bizitzaren aurrean.

- **Norberaren jatortasuna**

**129.** Kristau elkarteak guretako bakoitza bihotz-berritzen den neurrian dira bihotz-berrituko. Hau dela eta, beharrezkoa da Garizumako bihotz-berritzera eta bazko ospakizunetara zuzentzen diren elkarteko ekintzak geureganatzen eta barneratzen ahalegintzea. Entzun, senideok, Jaunarengana beteago bihurtzeko egiten zaizuen deia, edozein dela zuen adina, zuen ekonomi eta gizarte maila, edota zuetako bakoitzaren egoera. Adoretzen zaituztegu, elkarteko elizkizunetan parte hartzen duzuenegian egiazki egin dezazuen. Hala gertatuko da, barruko sentipenek kanpoko erritoei adierazten dutenari erantzuten diotenean.

- **Elkarteko bihotz-berritzea**

**130.** On bihurtzeko dei hau ulertu behar da baita kristau elkarteentzat ere. Behin eta berriz esan nahi dugu, beharrezkoa dela elkarteetako arduradunok egokierak eskaintzen ahalegintzea, kristau elkartearen egiara bihurtzeko bidean inor adoretzeko gaitasuna duten egokierak eskaini ere. Hona hemen zenbait oharkizun:



- Igandeetako Eukaristiak ahalegin osoz prestatu, zeuon eskuera dituzuen liturgi lagungarri guztiak erabiliz, behar diren ikaskuntzak eginez eta gauzak ongi paratuz;
- Jainkoaren hitza egoki aurkeztu talde desberdinetakoei, leku bakoitzean egokienak jotzen diren irizpideen arabera, hitzaldiak, Gogo-jardunak, mintzaldiak eta antzeko ekintzak era berrituagotan emanez;
- Penitentziako sakramentua ospatu, aparteko egokiera eskainiz, bai pertsonak eta bai elkarteak Jainkoarekin aurki daitezen, harrera ona egiten duen, eta barkatzen eta Jesukristoren jarraipenean bizitzera adoretzen duen Jainkoarekin;
- bizitzako laztasunera eta “penitentziazko baraura” eragin, guzti hau emaitza zabalaren sorburu izan dadin behartsuenen mesedetan, elkartean bertan eta mundu guztian;
- egokiera bereziak eskaini otoitz egiteko, elkartean eta bake giroan otoitz egin, baita horretarako bereziki prestatu dauden leku eta etxeetako bakardadean ere;
- Pazko Hiruhurreneko ospakizunak behar bezala balioztatu, eta berdin herri mailako jaiaren adierazpen jatorrak.

### • *Iradozikun berezia*

**131.** Iradozikun berezi bat aurkeztu nahi dizuegu, parroki elkarreei zuzendutako bihotz-berritze deiarekin oso bat datorrena. Gure elizbarrutian, adierazpen desberdinekin eta bide desberdinetatik bada ere, ahalegintzen gara gure Elizek aurpegi ebanjeliozkoagoa eta ebanjelizatzaileagoa erakus dezatela bideratzen. Gure asmoa da, elkartuagoak eta parte hartzaileagoak izan daitezela gure parrokiak. Saiatzen gara parrokiak elkartasun leku egiten, benetako maitasunean egin ere, hainbat eratako arazoiek bereizten eta sakabanatzen dituzten pertsonentzat. Erantzukizuneko hurbiltasuna gordetzea ere pobrezia, gaixotasuna edo bazterkuntza sufritzen dutenekin, helburu bat da guretzat, behin baino gehiagotan hartu izan duguna, sufritzen dutenentzat geu izan gaitzen Jainkoak dien maitasunaren adierazpen, eta itxaropen errainu. Bakegile ere izan nahi genuke, bortxakeriak hainbeste zulatzen duen herri honetan. Parroki elkarrearen aldetik, penitentzi azterketa bat egin ezinik ez dago, eginkizun honi eta beste zenbait eginkizuni buruz. Modu honetan, parrokiak jabetu daitezke nolako egoera daukagun, eta egoera honek nolako egokierak eskain ditzakeen, dela bihotz-berritzeko, dela Jesusi jarraitzeko bideetan aurrera egiteko.

Eliz elkarteak, Jesukristogan baketuriko gizatasunaren seinale bihurtu nahi ditugu, eta Jainkoaren erreinua gure artean dagoela adierazteko sakramentu; eta guzti honek bizitza mailan ekinbideren bat urra dezake, guk adierazi dugun bidetik.

### **Urrunduei eta fedegabekoei**

**132.** Azkenik hitz bat zuzendu nahi dizuegu zuei, egiazkoa bezain errespetuzkoa izan nahi duen hitz bat zuzendu, Elizatik urrunduak, kristau fedearikiko hotz edota erlijio planteamendu guztien etsai izanik ere, irakurtzeko edota entzuteko

konfidantza erakutsi diguzuenoi. Egiazkoa diogu, gure benetako sentipenen adierazpide izan nahi duelako.

Eta errespetuzkoa, mugabarru jakinean ibili nahi dugulako, hau da, konzientzietara hurbildu nahi luketenei pertsonen intimitateari berea aitortzeak ezartzen duen mugabarruan.

Esan nahi dizuegu, uste osoan gaudela gu, pertsona bakoitzak maitasun pertsonaldu baten harremanak dituela Jainkoaren aldetik. Iritzi sendoa dugu, Jainkoak, guri konprenigaitzak zaizkigun bideetatik, baduela asmorik egia eta zuzentasuna bilatzen dutenei bere buruaren agerpen egiteko. Sinesten ere dugu, Jainkoaren presentzia era askotara dela adigarri, mila modutan susmagarri gertatzen denez, eta bere hurbiltasuna sentiarazten duenez. Galderak, zalantzak, gauzak auzipean jartzeak, geroko argien iragarpen izan daitezke, giza espirituaren ilundura eta kezketan.

Badakigu, fedeak berak era baduela ilundurarik eta itxurakontrako oina-zeminik. Baina adoretzen zaituztegu pentsa dezazuen, ea fedeari uko egiteak kentzen duen giza espirituari berezkoa zaion zailtasunik, edota ea giza bizitza bera ez ote den bilatzen ari, bere itxura-kontrako arazo artean, halako itxaropen errainu bat, fededunak fedean bilatzen dugula uste dugun itxaropen errainu hori.

**133.** Errealitate historikoa da guretzat Jesukristo, eta Beronengan Jainkoak itxaropen sendoa edukitzeko arrazoi bat eman nahi izan digu, Jainkoagan sinesten duten guztientzat baliagarri dena. Heriotza azpiaratuz lortutako garaipenak oraindik ere hots egiten digu, gizakiak urraezinezko bokazioa duela bizirik irauteko. Sinesten dugulako hots egiten dizuegu, eta, une berean, gure hitz honen ahuldadeagatik barkazioa eskatzen, hitz horrek indartsuago behar bait luke izan Espirituarengan, eta Beronek berekin dituen seinaleetan. Guk geuk ere gero eta fededun beteagoak nahi genuke izan.

Utziezaguzue hau ere esaten: guretzat ez zarete gauza hotz eta motz. Zuei buruz ere, Jesukristok agindutakoaren eskakizuna sentitzen dugu: gizon-ema-kume guztiei Ebanjelioa hots egiteko eskakizuna. Badakigu jakin, giza askapenaren eta salbamenaren mezua onartzen baduzue, zoriontsuagoak izango zarete, eta munduan eraginkorrago gertatuko direla erreinuko balioak, bere betera iritsiko dela itxaroten dugun erreinukoak. Jainkoa zuengan dago. Bera aurkitu eta onartzeko gai izan zaitezte, hori opa dizuegu.

## AZKENA

**134.** Bizitzako zapuzketen eta bizitzeko gogoaren erdian borrokatzen den mundu honetan, federa bihurtzeak, gure ustez, itxaropena dakar berekin. Ezin onartua da guretzat, mundu hau historia egiteko gaitasuna eskuratu gabe bizitzera kondenaturik dagoela uste izatea, norantz doan ez dakienez. Sinesten dugu, Jesukristok betiko biziaren hitzak dauzkala (Jn 6,68). Horrela aldarrikatu dugu, bihotz-berritu gaitezen.

Beharrezkoa zaigu Jesus etor dadin gu salbatzera: guretako bakoitza eta gizadi osoa. Mariagatik etorri zen Jesus mundura. Eta kristau gehienok ere j ahetzen gara, Maria han egon zela baita ere, gure ibilbide erlijiosoan, era batera nahiz bestera egon, Jainkoagana eginiko urratsen bidegurutzean. Mariaren laguntzaz itxaroten dugu, Jainko Aitagandik iritsiko dugula, lehenengo kristauen antzera gure gizarte eta eliz egoeraren arabera etengabe ari dugun otoitza eraginkor izatea: “MARANA THA. Zatoz, Jesus Jauna!” (1 Kor 16,22; Apk 22,20).

Iruñea eta Tuterako, Bilbo, Donostia eta Gasteiz  
1991, otsailak 13  
*Hausterre eguna*

- ✘ **Jose Maria**, Iruñeko Gotzainburua eta Tuterako Gotzaina
- ✘ **Koldobika M.**, Bilboko Gotzaina
- ✘ **Jose Maria**, Donostiako Gotzaina
- ✘ **Jose Maria**, Gasteizko Gotzaina
- ✘ **Joan Maria**, Bilboko Gotzain Laguntzailea